

## ERANSKINEN AURKIBIDEA

### ERANSKINAK

<b>1. eranskina.</b> Gaur egungo aurkezten zaigun eredu sexuala. Carmen Camarero, Euke Redondo eta María José Urruzola 1987an argitaratutako “Sexualidad en la escuela manual para educadores” liburuaren arabera. ....	30
<b>2. eranskina.</b> Sexualitatearen azalpena eta sexualitateak dituen osagaien azalpena, OMS emandako definizio irizpidetzat hartuta. ....	33
<b>3. eranskina.</b> Haur sexualitatean (0-6 urte) eragina duten faktoreak eta haurren manifestazio sexualak. ....	39
<b>4. eranskina.</b> Familiak eskaintzen duen hezkuntza sexualaren argibide gehiago.....	46
<b>5. eranskina.</b> Irakaslearen papera. ....	48
<b>6. eranskina.</b> Hezkuntza sexualak Espainiako 1978ko konstituzioarekin, LOMCErekin eta curriculumarekin duen lotura zehatza. ....	57
<b>7. eranskina.</b> Hezkuntza sexualaren inguruko argibide gehiago. ....	84
<b>8. eranskina.</b> Ikasleei eginiko elkarrizketaren gidoia. ....	87
<b>9. eranskina.</b> Irakasleei egindako elkarrizketaren gidoia. ....	89
<b>10. eranskina.</b> Prozeduraren inguruko zehaztapen gehiago. ....	93
<b>11. eranskina.</b> Ikasleen elkarrizketetan bereganatutako datuak. ....	100
<b>12. eranskina.</b> Irakasleen elkarrizketetan bereganatutako datuak. ....	821
<b>13. eranskina.</b> Haurren identitate sexualaren datuak.....	837
<b>14. eranskina.</b> Haurren sexu identitatea eta genero identitatearen datuak. ....	840
<b>15. eranskina.</b> Haurren sexu identitate iraunkorra eta aldakorraren datuak. ....	849
<b>16. eranskina.</b> Haurrek haien identitate sexuala deskribatzeko erabiltzen dituzten ezaugarrien datuak. ....	854
<b>17. eranskina.</b> Haurren manifestazio sexualen ezaugarriak eta emaitzak. ....	856
<b>18. eranskina.</b> Haurrek sexualitatearen inguruan dituzten interesen emaitzak.....	862
<b>19. eranskina.</b> Haurrek harreman sexualen inguruan dituzten bizipen eta ezagutzen emaitzak. ....	865
<b>20. eranskina.</b> Hezkuntza sexualaren beharra justifikatzen duten datuak. ....	880
<b>21. eranskina.</b> Irakasleek zenbait kontzeptu sexualei emandako deskribapena. ....	884
<b>22. eranskina.</b> Irakasleek hezkuntza sexualaren beharraren inguruan emandako erantzunak. ....	887

<b>23. eranskina.</b> Irakasleek hezkuntza sexuala eskaintzeko izaten dituzten zailtasunak. .....	888
<b>24. eranskina.</b> Irakasleek izan duten jarrera. ....	889
<b>25. eranskina.</b> Irakasleen formakuntza hezkuntza sexualaren inguruan. ....	892
<b>26. eranskina.</b> Eskolak aurre egin behar dituen lau erronken inguruko datuak.....	895
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	904

## ERANSKINAK

### **1. eranskina. Gaur egungo aurkezten zaigun eredu sexuala. Carmen Camarero, Euke Redondo eta María José Urruzola 1987an argitaratutako “Sexualidad en la escuela manual para educadores” liburuaren arabera.**

Aipatutako autoreentzako eredu sexuala sexualitatea bizitzeko modu zehatza da, baina horrekin batera hori baloratzeko irizpideak, hizkuntza, etika sexuala, “normala” eta “ez normalaren” definizioa... Hori esanda, aurkezten den eredu sexuala honako ezaugarri hauek dituela aipatzen du:

- Sexualitatea ugalketari lotua agertzen da, horregatik koittoa erlazio sexual ororen gailurtzat hartzen da. Haur eta zaharren sexualitatea ezeztatzen edo erreprimitu egiten da, gaitasun sexuala pubertaroan hasten dela azpimarratuz. Sexualitatea genitalitatearekin lotzen da eta familian oraindik ezkontza harreman afektibo-sexualak izateko leku egoki edo “normal” bakartzat hartzen da.
- Gazteen afektibitatea eta sexualitatea erreprimitzen da, atzeratzen edo mugatzen da. Praktikan, haiek bakarrik, haien gorputza arakatzeko eskubidea ezeztatzen zaie. Txikitatik haien aktibitate masturbatzaileak zuzentzen dira. Ondoren, beren harreman afektibo sexualetan, haien jarrerak zigortuak izaten dira eta gure nagusi jokaera pausuak inposatzen dizkiegu. Gainera, gure beldurrak transmititzen dizkiegu eta haien behar afektibo sexuala onartzea kostatzen zaigu.
- Autoerotismoa ezeztatzen da; hau da, gure sexualitate propioarekin gure gorputzaren ezagutza eta plazeraren lorbidea ezeztatzen da. Gainera, askotan ez dugu gure gorputza ezagutzen, ezta plazera emateko posibilitateak ere.
- Sexu bereko harremana errefusatu eta diskriminatu egiten da, sexualitatea heterosexualitatera mugatuz, hori gaur egungo marko familiar aktualean sartzeko era bakarra dela pentsatuz. Hortik “ateratzen den” guztia desbideratze, bizio edo pertsona bitxi batzuen desira arrarotzat hartzen da.
- Giza beharra den plazer sexuala ezeztatzen da eta plazer sexuala zentzu erdeinagarri batean hartzen da.
- Jokaera afektibo-sexualaren pausuak markatzen dira, txikitatik maitasunerako eta sexurako hezten gaituzte, aurrezarrirako zenbait eredutan oinarrituz.

- Moral jakin bat inposatzen digute, gure jokabide sexuala onartzen edo gaitzetsi egiten duena, eta gizartean indarrean dagoen “eredua”ren arabera dena.

- Sexualitatea gure bizitzako jarrera isolatua moduan aurkezten zaigu.

- Publizitatean eta pornografian sexualitatea salerosi egiten da, interes patriarkal eta ekonomikoen eskuetan jarritz.

- Oraindik eredu sexual berdinen transmisioa ematen da. Azpimarratzekoa da, etika sexual berriak ez duela esanahi bera mutilentzat, zein nesKentzat.

Sozialki ezarritako “eredu” hori bereziki emakumeei kalte egiten die, eta aspektu hauetan diskriminatuta gelditzen dira:

- Gizonak emakumearekiko dominazioa, sexua dela eta.

- Sexuaren arabera lan banaketa familia barruan.

- Gizonaren iniziatiba sexuala faboratu egiten da. Gizona afektiboki intsinuatu behar dena dela, emakumea bilatu behar duena, aukeratzen duena...

- Emakumeen arteko homosexualitatea onarpen gutxiago du gizonen artekoarekin alderatuz.

- Sexualitatea koitoan oinarritzea: emakumeek haurdun gelditzeko larritasunarekin harreman sexualak izaten dituzte eta antisorgailuak hartzea behartuak ikustera heltzen dira, batzuetan amatasun ez desiratua onartzera behartuak izaten dira eta beste batzuetan, abortatzera behartuak izaten dira.

- Emakumea gizonaren nahi sexualen zerbitzura uzten da.

- Menopausia behar eta gaitasun sexualen amaieratzat hartzen da, sexualitatea soilik ugalketarekin berriz ere lotuz.

- Eraso sexuala eta emakumearekiko biolentzia oraindik ematen da.

- Emakumeei gizonaren nahiei mesede egiten dieten jarrera sexualak eskatzen zaizkie. Gainera emakumeek haien desira sexualak adierazten dituztenean mesprexuz izendatzen zaie.

- Txikitatik nesken mundua ezkontzara, etxera eta amatasunera mugatuta ikusten da jostailuen bidez, arropa, hizkuntzaren... bidez.
- Intsinuatzailea eta irtirinak izateko hezten dira emakumeak, gizonaren beharrak asetzeko.
- Emakumea kontsumo objektutzat hartzen da publizitatean.
- Edertasun femeninoaren eredu zehatz bat sortu da, komertziala eta publizitarioa; emakumeen arteko lehia eta gizonaren beharrak asetzeko desira erakusten duena.

## **2. eranskina. Sexualitatearen azalpena eta sexualitateak dituen osagaien azalpena, OMS emandako definizio irizpidetzat hartuta.**

Efigenio Amezárentzako sexualitatea norbere sexuaxioa<sup>1</sup> bizitzeko era propioa da, gizon edo emakume izateko modua (Gómez-Zapiain, 2013). Hau da, bakoitzak, sexutik, konstituzio biologikotik, hasten den bidea, da, hortik bizitzeko duen era da sexualitatea; sexuazioa bizitzeko modu pertsonala (Gómez-Zapiain, 2013). Hortaz, sexuazioa bizitzeko modu anitzak daude eta ondorioz, sexualitate anitzak ere. Hots, haur bakoitzak bere sexualitatea du. Beste hitz batzuekin esanda, sexualitatea giza pertsonalitatearen berezko osagai bat da (Hernández eta Jaramillok, 2003), komunikazioaren, afektibitatearen, plazeraren eta ugalketaren iturri dena, eta sexualitatea bakarra da, baina bizitza osoan bariatzen doa.

Halaber, sexualitatea haurren behar sozial, afektibo eta sexuala da (Bolaños, González, Jiménez, Ramos eta Rodríguez, 1994). Hau da: “La sexualidad, pues, es todo un mundo de posibilidades. Conocerla y vivirla libre y responsablemente es saludable y necesario para nuestro equilibrio como persona.” (Bolaños, et al., 1994). Laburbilduz, giza sexualitatea bizitza osoan irauten duen sexuazio prozesu jarraitua eta aldakorra da, haurtzaroan ere presente dagoena.

Haur sexualitateari dagokionez, esan beharra dago ere, heldu sexualitate guztiaren oinarrian agertzen dela; bestela esanda, “Lo que vaya a ser en el futuro la sexualidad de una persona cronológicamente adulta, va a venir marcado por la forma en que haya vivido su sexualidad en el periodo de la infancia.” (Fernández, 1982: 19.orr). Dena den, haurtzaroan ematen dena ez da zertan etorkizunaren ispilua izan behar.

Sexualitatea definitzen jarraitzeko OMSek (Osasunaren Mundu Erakundea) emandako definizioa aztertuko da; izan ere, sexualitatearen osagai nagusiak aipatzen ditu eta sexualitatearen definizioa gehiago osatzen du:

La sexualidad incluye sexo, género, identidad sexual y de género, orientación sexual, erotismo, apego emocional/amor, y reproducción. Esta experiencia se expresa o se vive a través de pensamientos, fantasías, deseos, creencias, actitudes, valores, actividades, prácticas, roles y relaciones, y se construye por medio de interacción entre el individuo y las estructuras sociales. (OMS, 2005: 36.orr)

---

<sup>1</sup> Sexuazio prozesuari deritzogu, emakume edo gizon izateko modua inplikatzeko duena (Gómez-Zapiain, 2013).

Sexualitatearen definizio horrek haur sexualitatearekin bat egiten du. Baina definizio hori gehiago zehazteko sexualitatea genitalitatea<sup>2</sup> ez dela gehitu behar da, eta intersexualitateari<sup>3</sup> begirunea eskaintzea premiazkoa da. Era berean, OMSko definizioan osagai moduan aipatu den ugalketa eta erotismoa, normalean, heldu sexualitatearekin lotzen dugula azaldu beharko litzateke, baina haurren inguruan hitz egiten jarraitzeko ikuspegi hori baztertu behar da, haur eta nagusien sexualitatea desberdina delako eta era desberdinean ikusi behar direlako. Izan ere, haur sexualitatea heldukoenarekin alderatuta, gutxi bereizia eta antolatua, eta zentzu erotikorik gabekoa da (Gómez-Zapiain, 2013). Hala ere, ikertzaile neurobiologikoen haurtzaroen maila hormonalak eta neurotransmisoreak, genetikoki programatuta daudela, eta jokabide erotiko zehatz bat induzitzen dutela estimatzen dute (Blümel, Castelo eta Vallejo, 2005). Gainera, jaio ostean nahiz eta anatomia haur batena izan, eta obulazio eta eiakulazio gaitasuna pubertaroen aktibatzen den, plazer sexualaren fisiologia aktibatuta dago, eta plazer sexuala aurki eta bila dezakete haurrek (López, 2013). Edonola ere, nahiz eta jokabideek zentzu erotikoa izan, ez da helduek dutenarekin alderatu behar. Marko teorikoan aipatu bezala, hauraren sexualitatearen beste ezaugarri bat dauka, autoerotikoa eta egozentrikoa (Bere buruan, bere gorputzan, zentratzen da) dela; eta sentsibilitate gehien duten zona erogenoak ez dira zertan genitalak izan behar (Gómez-Zapiain, 2013).

Jarraitzeko, OMSk aipatutako osagaiak definituko dira, hots, sexualitatearen osagaiak definituko dira; haur sexualitatea, zehaztasunez ulertua izateko. Hasteko, OMSk emandako lehenengo definizioan agertzen den lehen osagaia definituko da. Horretarako RAE (2014) hiztegian sexuaren inguruan egiten den definizioa kontuan hartuko da.

Latinetik datorren hitzaren (*sexus*) definizioa bilatuz gero, lau definizio agertzen dira:

1. Animalien eta landareen baldintza organikoa, maskulinoa edo femeninoa. Sexu maskulinoa, femeninoa.
2. Sexu berdineko izaki multzoa. Sexu maskulinoa, femeninoa.
3. Organo sexualak.

---

<sup>2</sup> Sexualitatearen aparatu bat baino ez da (Ferren, 1988).

<sup>3</sup> Intersexualitatea identitate sexualaren konfigurazio eta eraikuntzan presente dauden elementu sexuatzailak dira. Sexuazio prozesu honen emaitza intersexualitatea da, eta bizitza osoan irauten du (Iturbe, 2015).

4. Placer venéreo. *Está obsesionado con el sexo.*

5. Actividad sexual. *Está obsesionado con el sexo.*

Hau da, lehenengo definizioan arra (XY) eta emea (XX) bereizten dituen anatomiaren eta fisiologiaren ezaugarriak dira; adibidez, emakumearen genitalak eta gizonaren genitalak, emakumearen garuna eta gizonarena, gorputz femeninoa eta maskulinoa... (López, 2013). Beste hitz batzuekin esanda, pertsona bat maskulinoan edo femeninoan sexuatu izateko elementuen taldea da: sexu gonadala (testikuluak eta obarioak), sexu genitala (zakila eta alua) eta sexu somatiko edo morfologikoa (hormonak) (Area eta Díaz, 2009).

Susana Gamba *Diccionario de Estudios de Género y Feminismos* lanean (2007) egindako genero eta sexuaren arteko bereizketan, sexuaren inguruan egiten duen definizioa bat dator RAEko (2014) lehenengo definizioarekin:

El sexo corresponde a un hecho biológico, producto de la diferenciación sexual de la especie humana, que implica un proceso complejo con distintos niveles, que no siempre coinciden entre sí, y que son denominados por la biología y la medicina como sexo cromosómico, gonadal<sup>4</sup>, hormonal, anatómico y fisiológico (RAE, 2014).

Azpimarratzekoa da, lanean sexuaz hitz egiten denean, lehenengo definizio horri erreferentzia egiten zaiola.

Hots, pertsona guztiak jaiotzen direnetik sexuatuak dira, hau oinarritzat hartuta, Graciela Hernández eta Concepción Jaramillok (2003) sexuari definizio bat emateko hurrengoa aipatzen dute: pertsona guztiek pentsatzen, ulertzen, espresatzen, komunikatzen, disfrutatzen, sentitzen eta sentiarazten uzten dien gorputz sexuatu bat dute femeninoan edo maskulinoan. Beraz, gorputz sexuatu, sexualitatea ahalbidetu egiten du.

RAEk (2014) ematen duen bigarren definizioa bi sexu desberdin daudela azaltzen du: sexu femeninoa ala maskulinoa. Dena den, marko teorikoan aipatu bezala, subjektuak ez dira guztiz maskulinoak, ezta femeninoak ere, izan ere, pertsona guztiek maskulinitasunari lotutako hazpegiak eta feminitateari lotutako hazpegiak dituzte

---

<sup>4</sup> En su dimensión gonádica, el sexo se define por la presencia de testículos y pene (genitales masculinos) u ovarios y vulva (genitales femeninos), es decir por la morfología de los órganos reproductivos internos y de los genitales externos



(Iturbe, 2015). Sexuaren definizio honek, generoaren azalpena eskatzen du, sexuaren kontzeptutik ezberdintzen dena. Hau da, alde batetik, jaiotzetik ezaugarri biologikoak eta fisiologikoak ditugu, eta beste alde batetik, segun gizonak edo emakumeak izan, sexua era berezi batean bizitzera ahalbidetzen gaituzten dimentsio psikologikoak ditugu (Padrón, Fernández, Infante eta París, 2009). Generoa gizarteek desberdintasun sexual anatomiko-fisiologikoen aurrean sortutako praktika, sinbolo, irudikapen, arau eta balore sozialen multzoa da (De Barbieri, 1990; in Gamba, 2007). Javier Gómez-Zapiainek “Psicología de la sexualidad” (2013) liburuan esaten duen moduan, generoak honi egiten dio erreferentzia: “El ‘género’ se refiere a las atribuciones que la cultura ha ido realizando a la realidad ‘sexo’ desde el ambiente primitivo de socialización hasta nuestro días” (65.orr).

RAEk (2014) ematen duen hirugarren definizioak gorputzeko organo sexualei erreferentzia egiten dio: zakila eta aluari. Bi sexuak desberdinak dira, eta biek bizitzan zehar aldaketak pairatzen dituzte.

Laugarren eta bosgarren definizioek, RAEk (2014) ematen dituenak, sexu-harremanei erreferentzia egiten diote. Askotan pentsatzen da aktibitate sexuala koitora soilik zuzendua dagoela, baina masturbazioa, laztanak, musuak... ere praktika sexualak dira (Bolaños, et al., 1994) eta ez dugu ahaztu behar Haur Hezkuntzan haurrek ezezagun batzuen (irakaslea, beste ikasleak...) praktika afektibo horiek izango eta haiei emango dietela.

Sexuaren eta generoaren definizioa eman ostean, identitate sexualaren eta genero identitatearen definizioa azalduko da. Askotan identitate sexuala, sexualitatearekin okertzen da eta zenbait autorek ez dute bereizketarik egiten identitate sexualaren eta genero identitatearen artean; izan ere, identitate sexuala eta genero identitatea, generoa eta sexua bezala, elkar-harremanean daude; hots, genero identitateak identitate sexuala du oinarrian, eta sexu identitatea ez da era isolatuan ematen, sexua eta generoa bezala harremanean daude. Hortaz, zaila da biak bereiztea, baina Gradu Amaierako Lan honetan orain emango diren definizioak kontutan hartuko dira:

Identitate sexuala emakume edo gizon bezala identifikatzea da, hots, sexu batekoa izatea edo bestekoa, eta bi identitate daude bakarrik: emakume ala gizon izatea (López, 2013), ikupegi biologikotik begiratuta. Beste era batera esanda, “La identidad sexual es

un juicio (soy mujer, soy hombre) sobre la propia figura corporal, basado en las características biológicas (genitales, figura corporal)” (Gómez-Zapiain, 2003: 70.orr). Hots, identitate sexuala “Es la toma de conciencia y, consecuentemente, de vivencia por parte de los niños y de las niñas de que su cuerpo es sexuado y de que pertenecen a uno de los dos sexos: chico o chica” (Iturbe, 2015: 49.orr). Are gehiago, Xabier Iturbek “Coeducar en la escuela infantil” liburuan (2015) identitate sexuala bost fasetan sailkatzen du:

- Lehenengo fasea: Asignatutako sexua eta hazkuntza sexua. Haurra jaioberria denean ematen da, haurra jaiotako sexuaren arabera gurasoek jarrera eta igurikapen zehatzak izaten dituzte. Jaiotzen direnetik sexu baterako edo beste baterako hezten dituzte, kulturako estereotipoak jarraituz.

- Bigarren fasea: Bereizketa sexuala hasten da (2-3 urterekin). Bi urte eta erdirekin sexu bakoitzeko jarrerak bereizi egiten dituzte. Hiru urterekin, gehienek badakite sexu bakoitzari zein egoera multzo, jokabide, gertaera edo objektu dagokion. Izan ere, jaio aurretik rol sexuatu<sup>5</sup> bat eskaintzen zaio haurrei, haien sexuan oinarrituz.

- Hirugarren fasean: Identitate sexuala hasten da (3-6 urterekin). Sexu bakoitzari lotzen zaion jarrera eta rolak bereizten hasten dira, eta sozialki eta kulturalki sexu bakoitzarentzako baloratuta dagoenaren arabera jokatzeko hasten dira.

- Laugarren fasean: Identitate sexualaren iraunkortasuna mantentzen da (6-7 urterekin), kanpoko ezaugarriak aldatu arren. Hau da, identitate sexualaren funtsean bere gorputzaren ezaugarriak daudela ulertzen da, eta ez horiei eskaintzen zaion rol soziala, aldakorra dena (López, 2009). Xabier Iturbek iraunkortasun hau 6-7 urte bitartean ematen dela aipatzen du, aldiz, Félix López Sánchezek argitaratutako “La educación sexual liburuan” (2009) identitate sexualaren iraunkortasuna 5-6 urterekin ematen hasten dela dio. Gainera, Lópezek gehitzen du adin tarte horretan identitate sexualaren iraunkortasunaz gain, haurrak identitate sexual eta genero rola arteko bereizketa egiten dakitela.

---

<sup>5</sup> “Los roles asociados al sexo es lo que cada cultura considera apropiado para cada uno de los sexos” (López, 2013). Rol sexuatuak eta genero rolak Félix Lópezen aburuz gauza bera dira: “El rol de género son las asignaciones (características en el vestir, manera de ser y comportarse en los distintos ámbitos, trabajos y profesionales, etc.), que la sociedad considera como propias de la mujer o del varón” (López, 2009).

- Bosgarren fasean: Identitate berria. Biologikoki egokitutako sexuarekin identifikatzen ez diren eta askotan kontrako sexu bateko ezaugarri identitarioak bereganatzen dituztenean ematen da.

Bestalde, genero identitatea, “Es un juicio de autclasificación como hombre o como mujer, en base a las atribuciones que las diversas culturas han ido aplicando a los sexos biológicos” (Gómez-Zapiain, 2013: 70.orr). Emakume edo gizon, transexual edo transgeneroa bezala sailkatzea eta identifikatzeari deritzogu alegia. Hau da, alderdi psikologikoz gain, alderdi emozional eta sozialarentzako ere lekua dago.

Hori esanda, orientazio sexuala azaltzea berebiziko garrantzia du ere: Orientazio sexuala desira, orientazioa edo erakarpenarekin bat egiten du, hau da, homosexual (lesbianismoa barne), bisexual edo heterosexual izateari egiten dio erreferentzia.

OMS dioen moduan sexualitateak osagai horiek guztiak (sexua, generoa, identitate sexuala, genero identitatea eta orientazio sexuala) barnean hartzen ditu, baita atxikimendu emozionala edo amodioa, ugalketa eta erotismoa ere (eszitazioa, plazera, senxualitatea eta sexualitatea adierazteko modua). Atxikimenduari dagokionez, argi izan behar da haur guztiek pertsona batzuekin binkulu afektibo inkondizionalak, baldintzarik gabekoak, sortzeko beharra dutela (López, 2009). Atxikimendu emozional horri Joana Jauregizar-ek definizio bat esleitzen dio:

Haurren eta beste pertsona baten artean garatzen den lotura emozional berezia, denboran zehar mantentzen dena, bien arteko interakzioari esker garatzen dena, eta elkarrekin egoteko nahia eta banatzean larritasuna sortzen dituen. Atxikimendua bizitzaren lehenengo urtean zehar garatzen da, eta haurren eta haren zaintzaileen arteko harreman moten menpe egongo da. (Jauregizar, 3.orr)

Amaitzeko, ugalketaren, hau da, OMSk aipatutako azken osagaiaren, definizio labur bat eskainiko da: ugalketa prozesu biologikoa da, bizia erreproduzitzeko erabiltzen dena. Ugalketa sexu bidez, edo era asexualean egin daiteke, intseminazioaren bidez adibidez. Garrantzitsua da ugalketa eta sexu harremana ez nahastatzea, sexu harremana ez baita soilik ugalketarako erabiltzen. Hots, ugalketa sexualitateak eskaintzen dituen posibilitate guztietatik bat baino ez da (Bolaños, González, Jiménez, Ramos, Rodríguez eta Vega, 2008).

### **3. eranskina. Haur sexualitatean (0-6 urte) eragina duten faktoreak eta haurren manifestazio sexualak.**

Haur sexualitatea (0-6 urte bitartean) faktore batzuen menpe dago eta faktore horien ondorioz, haurrak sexualitatea bizi egiten du eta zenbait manifestazio sexual ditu, sexuaxio prosezuan murgiltzen dutenak.

Sexualitatean eragiten duten faktoreen inguruan aditu eta korrante desberdinek faktore desberdinei garrantzia ematen diote; adibidez, psikoanalistek faktore biologiko (genitalak) eta psikikoei (afektua) ematen diote garrantzia. Teoria kognitiboek, aldiz, faktore psikikoei: inguru sozialetik bereganatutako esperientzien bidez ezagutza eraikitzeke gaitasunari. Soziologoek, haien aldetik, ikuspuntu sozialei: boterea eta sistema soziala, ekonomikoa eta erlijiosoari eskaintzen diete arreta, eta irakaskuntza teorietan faktore sozialei, hau da interakzioari, garrantzi berezia eskaintzen diete.

Halaber, beste ikuspegi globalago batzuk daude, non faktore guztiak aintzat hartzen diren. Adibidez, Javier Gómez-Zapiainek “Psicología de la sexualidad” liburuan (2013) giza sexualitatearen oinarri nagusiak biologikoak, psikologikoak eta sozialak direla dio edo Félix López eta Antonio Fuertesek, sexualitatea modu islatuan ezin dela ulertu argitzen dute, eta sexualitatea gaitasun eta prozesu biologiko, linguistiko, intelektual eta afektiboek baldintzatzen dutela baieztatzen dute (1993).

Sexualitatea nagusiki kultura eta bizi garen gizarte-inguruagatik baldintzatuta dagoela dio Xabier Iturbek “Coeducar en la escuela infantil sexualidad amistad y sentimientos” liburuan (2015). Aitzitik, Willian H. Masters, Virginia E. Johnson eta Robert C. Kolodny-ren iritziz, “La sexualidad humana” liburuan (1987) aitortzen dutena kontuan hartuta, faktore biologikoek hein handian garapen sexuala kontrolatzen dute. Ildo beretik, John Money biki unibitelinoekin egindako esperimentuagatik<sup>6</sup> esan daiteke familiarik, kultura eta bizi garen gizarte-ingurutik bereganatzen dugun hezkuntza, faktore biologikoek baino garrantzi gutxiago hartzen dutela genero identitatearen garapenean. Dena den, 1974 Errepublika Dominikanoko lau landa-lurraldeetan haur hermafroditekin<sup>7</sup> eginiko esperimentua kontuan hartuta, garapen sexuala faktore biologiko eta hezkuntzaren arteko elkarrenganako ekintzak determinatzen duela

---

<sup>6</sup> Jarraian John Moneyren esperimentuaren deskribapena dago

<sup>7</sup> Bi ugalketa organo sexuarekin (femeninoa eta maskulinoa) duten pertsonak.

ondoriozta daiteke<sup>8</sup>. Beraz, zientzia guztien ikuspegi global bat izanda, esan daiteke sexualitatea sexuazioaren bidez garatzen dela bizitza osoan zehar eta jaio aurreko aldian (umetoki barneko aldian) sexuazioa hasten dela. Aldi horretan, sexuazioa faktore biofisiologikoen<sup>9</sup> menpe dago, baina jaio ostean, beste faktore batzuk integratzen dira faktore biofisiologiko horietara.

Hasierako urteetan, 0-2 urteko tartean, atxikimendu afektiboa nabarmendu behar da marko teorikoan aipatu bezala. Bi eta sei urte bitarteko etapan identitate sexual eta genero identitatearen eraketa nabarmendu beharra dago (Gómez-Zapiain, 2013), eta sexualitatea sentazio korporalekin eta atxikimendu figurekin harremanetan bizi eta garatu egiten dela (López eta Fuertes, 1993). Hau da, aldi horretan haurren sexualitatea alde batetik ukitzeak sortzen dien sentazio korporalen ondorioz, gorputza arakatur... eta beste alde batetik bere gurasoekin harremanak izaten, beste berdinkide batzuekin harremanak izaten... garatu egiten da.

Hurrek besteak arakatzeko, imitatzeko (rol sexualen imitazioa adibidez) eta plazeraren bilaketa egiteko joera dute. Behar sexual horiek haurraren behar propioak dira, beste oinarrizko beharrak bezala: seguritatea, komunikazioa, afektua, plazera..., eta jolasen sexualen bidez, zenbait jokabideren bidez... azalaratzen dituzte (Gómez-Zapiain, 2013).

Hala ere, adin hauetan haurrak sexualiterik bizitzen eta manifestatzen ez dutela baieztatzen duten zenbait testimonio daude. Hauek bi arrazoietan oinarritu daitezke; alde batetik, aldi puritanoan sortutako haurrarekiko ikuspegi garatugabea, haurrak oraindik sexualitatea garatu ez duela uste duena; eta bestetik, haur sexualitatea helduen sexualitateko ezaugarri berdinak ez izatean. Hau da, hurrek bestelako espresioak ager ditzaketenez, helduen aldetik hauek sexualak moduan errekonozitzeko zailtasunak ager daiteke (Bolaños, et al., 1994). Baina ziurtasunez esan daiteke haurra sexuatua dela, eta sexualitatea bizi egiten duela, jakinda adin bakoitzean desberdin bizitzen duela. Izan ere, existentzia hori ziurtatzen duten manifestazio sexualak 0-6 bitarteko aldian ikus ditzakegu (Bolaños, et al., 1994).

---

<sup>8</sup> Jarraian 1974 Errepublika Dominikanoko lau landa-lurraldeetan haur hermafroditekin eginiko esperimenduaren azalpena dago.

<sup>9</sup> Morfoanatomikoak eta fisiologikoak.

Premia bereziak dituzten haurren kasuan, Haur Hezkuntzako etapan ia ez dago ikerketarik, baina ez dago dudarik haiek ere pertsona sexuatuak direla eta sexualitatea bizi egiten dutela. Hala ere, esan daiteke adin hurbilketa bat egitea mugatuagoa dela, hots, premia berezirik gabeko haur baten sexualitatea garapena eredutzat hartuta, premia bereziko haurrentzat eredu horretan agertuko diren adin hurbilketak mugatuagoak izango dira; zailtasun-mota, erasan-mailaren eta beste faktore batzuen arabera baita (Gómez-Zapiain, 2004).

**John Moneyren esperimentua:**

BBC (2010/11/27). El niño que fue criado como niña. *BBC*. Hurrengo helbidetik hartuta:

[http://www.bbc.com/mundo/noticias/2010/11/101125\\_cambio\\_genero\\_sexualidad\\_men.shtml](http://www.bbc.com/mundo/noticias/2010/11/101125_cambio_genero_sexualidad_men.shtml)

**El niño que fue criado como niña**

Redacción

*BBC Mundo*

Cuando una pareja tiene un bebé lo primero que se pregunta es "¿fue niño o niña?"

Un accidente obligó a criar a Bruce Reimer como Brenda.

La respuesta está dictada por la biología. Los cromosomas se encargan de la sexualidad: XX para una mujer y XY para un hombre. Y las hormonas sexuales se encargan de la apariencia física.

Pero ¿qué ocurre cuando la biología, la apariencia y la crianza no coinciden?

Ese fue un caso que ocurrió en los años 1960, que terminó en tragedia.

Los gemelos Bruce y Brian Reimer eran dos niños perfectamente normales que nacieron en Canadá, pero a los siete meses de nacidos ambos comenzaron a presentar dificultades para orinar.

Siguiendo un consejo médico, sus padres, Janet y Ron, llevaron a los niños al hospital para someterlos a una circuncisión.

Pero a la mañana siguiente recibieron una devastadora llamada telefónica. Bruce había sufrido un accidente.

Los médicos habían utilizado una aguja cauterizadora en lugar de un bisturí, y el equipo eléctrico había tenido un problema que provocó un aumento en la corriente que quemó por completo el pene de Bruce.

"No podría comprender lo que estaba escuchando", recuerda Janet Reimer.

"Creí que iban a utilizar un cuchillo. No sabía porqué habían utilizado electricidad".

La operación de Brian fue cancelada y los Reimer llevaron a sus hijos a casa.

Experimento ideal:

Pasaron varios meses y los Reimer no tenían idea de qué hacer, hasta que conocieron a un hombre que cambiaría su vida, y la de los gemelos, para siempre.

Era el doctor John Money un psicólogo especializado en cambios de género.

El experto creía que no es tanto la biología la que determina si somos mujeres u hombres, sino la forma como somos criados.

Janet Reimer llevó a Bruce a Baltimore para consultar al doctor Money.

Para el experto, el caso presentaba la posibilidad de un experimento ideal: un niño que él pensaba que debía ser criado como el género opuesto, y que incluso contaba con su propio grupo de control, un gemelo idéntico.

Si su teoría se confirmaba sería evidencia irrefutable de que la crianza podía invalidar a la biología. Además, el doctor Money creía realmente que Bruce tenía mejores posibilidades de ser feliz como mujer que como un hombre sin pene.

Ahora contamos con equipos multidisciplinares bien entrenados, con varios profesionales involucrados, para poder tomar esa decisión (Dra. Polly Carmichael).

Así que Bruce, a los 17 meses de edad, se convirtió en Brenda. Y cuatro meses más tarde se llevó a cabo la primera fase quirúrgica de su tratamiento, una castración.

El experto subrayó que, si querían que el cambio de género funcionara, los padres nunca debían decirle a Brenda ni a su hermano gemelo que había nacido siendo niño.

Así que para seguir su progreso el caso fue bautizado como John/Joan. Y la identidad de Brenda fue mantenida en secreto.

En una de esas sesiones anuales el doctor Money grabó que "la niña tiene muchas características de 'marimacho', una abundante energía física y un alto nivel de actividad y rebeldía. Y a menudo es la que domina en un grupo de niñas".

Para 1975, cuando los niños tenían 9 años, el doctor Money publicó un estudio detallando sus observaciones. El experimento, dijo, había sido un éxito total.

"Nadie más sabe que Brenda es la niña cuyo caso están leyendo en los medios. Su conducta es tan normal como la de cualquier niña y difiere claramente de la forma masculina como se comporta su hermano gemelo".

"No hay ninguna señal que provoque sacar conjeturas contrarias", expresó el especialista.

Sin embargo, cuando Brenda alcanzó la pubertad a los 13 años comenzó a mostrar sentimientos suicidas.

"Pude ver que Brenda no era feliz como niña", recuerda Janet.

"Era muy rebelde. Era muy masculina y no lograba persuadirla de que hiciera algo femenino. Brenda casi no tuvo amigos durante su infancia. Todos se burlaban de ella y la llamaban la mujer cavernícola".

"Era una niña muy, muy sola", agrega.

Ante esta situación los padres de Brenda optaron por no seguir consultando al doctor Money.

Poco después hicieron algo que el psicólogo les había advertido que no hicieran: le dijeron a la niña que había nacido siendo niño.



Semanas después Brenda eligió volverse David. Fue sometido a cirugía reconstructiva y eventualmente se casó.

Aunque no pudo tener hijos, fue el feliz padrastro de los tres hijos de su esposa.

Final trágico:

Los cromosomas dictan si se es hombre o mujer.

Pero David no sabía que había sido inmortalizado en el mundo académico y científico como el protagonista del caso de John/Joan para reasignación de género.

Y cuando se enteró no podía creer que se le presentara como un "caso exitoso" en los libros de texto médicos y psicológicos que lo ponían como ejemplo en los protocolos para tratar a hermafroditas y a personas que habían perdido el pene.

Cuando cumplió 30 años David sufrió una crisis de depresión. Perdió su trabajo y se separó de su esposa.

En 2002 su hermano murió a causa de una sobredosis. Y dos años más tarde, cuando David tenía 38 años, la policía le informó a Janet y Ron que su hijo se había suicidado.

**1974 Errepublika Dominikanoko lau landa-lurraldeetan haur hermafroditekin eginiko esperimientua**

Howell, William, Eshelman, Virginia eta Kolodny, Robert (1987). *La sexualidad humana. 1. La dimensión biológica*. Barcelona: Grijalbo.

1974an Errepublika Dominikanoan hainbat haur hermafrodita jaio ziren. Konstituzio genetikoz mutil ziren, baina neska moduan heziak izan ziren 38 haur zeuden. Jarraitutako haurretatik 17k genero identitate maskulinoa bereganatu zuten eta 18 horietatik 17k rol sexual maskulinoa bereganatu zuten. Emaitza hauek ikusita, biologiak hezkuntza baino garrantzi handiagoa duela antzeman daiteke. Baina kontuan hartzekoa

da ere nekazal lurralde horiek patriarkalak zirela eta gizonak emakumeak baino eskubide gehiago zituztela. Emakumearen bizitza etxera soilik mugatzen zen, aldiz, gizona askea zen. Beste hainbat gizarte faktore ere eragiten zuten, beraz, hurrek emakume baino gizon izan nahi zuten eta horrek eragin zitekeen neska izateko heziak izan ziren hurrek nahiago izatea mutil izatea (Howell, Eshelman eta Kolodny, 1987).

#### **4. eranskina. Familiak eskaintzen duen hezkuntza sexualaren argibide gehiago.**

Eskolan eta familian ematen diren hezkuntzak desberdinak dira, baina biak beharrezkoak dira haurren garapen integrala lortzeko. Hortaz, elkarlanean egon beharko lukete (López, 2005).

Eskolan hezkuntza sexuala onartzen duten gurasoak, onartzen ez dutenak eta alde edo kontra egiten ez dutenak daude. Guraso gehienak azken jarrera horretan kokatzen dira, baina hezkuntza sexuala aurrera eramateko onauragarria da gurasoek laguntzea eta eskolarekin ados egotea, haien ekarpenak eskainiz (Bolaños, et al., 2008).

Gurasoek hezkuntza sexual egokia egiteko naturaltasunez jokatu behar dute eta afektuz eta konfiantzazko giroa sortu behar dute. Hobe da jokabide artifizialak ez izatea, eta informazioaz gain, jarrerarekin ere hezten dela jakitea (Ferren, 1988).

Informazio sexuala eskaintzeko adina, hurrek erakutsiko diete gurasoei, hurrek haien interesak eta egonezinak aldarrikatzean (Ferren, 1988). Dena den, haurrari hitz egitera gonbida diezaiokegu, adibidez, ezkontza moduko topikoen inguruan hitz egitera, maitasunaren inguruan, jaiotzen inguruan... haurrak edozertaz hitz egin daitekeela ikusteko (Ferren, 1988). Askotan zer dakien azaltzen entzutea baliogarria izango da ere, berak egindako teoriak zeintzuk diren ikusteko eta informazioa gehiago behar duela ikusita, hori eskaintzeko (Ferren, 1988). Era berean, komenigarria da haurrak galdetzen duenari entzutea, eta erantzuna bere garapenera egokitzea (Ferren, 1988). Gurasoen posizioak naturala izan behar du, beste gaiekin bezala, eta era ulerkorrean, argian, positiboan, labur, egia esanez, gutxiesten ez duen hizkuntzarekin, haurraren interesa haustu gabe eta bi sexuen arteko berdintasuna azpimarratuz azaldu behar dira (Ferren, 1988): neska zein mutil izatea oso ondo dagoela azalduz, bi sexuen inguruan ikuspegi positiboa izanez eta bi sexuak nahi dutena izan dezaketela azpimarratuz (López, 2005).

Beraz, garrantzitsua da, gurasoak haurraren eredu direnez gero, zintzotasunez jokatzeko, gurasoek emozionalki eta afektiboki sendo sentitzea (dibortzioekin, adibidez) konfiantzazko giroa sustatzea, era positiboan haien sexualitatea bizitzea eta etxeko lanen eta zaintzaren ardura berdintasunean oinarritutako banaketan oinarritzea (López, 2005). Gurasoek nahiz eta informazio egokia eskaini, kontuan hartu behar dute hurrek gaitasun izugarria dutela eguneroko praktikatik ikasteko. Ondorioz, rol sexistak ez erreproduzitzeko arretatsu jokatu behar dute gurasoek, eta hurrei luzatutako liburuekin,

filmekin, telebista saioekin... kritikoak izaten irakatsi behar diote haurrari (Bolaños, et al., 2008).

Gurasoek zailtasunak izaten dituzte sexualitatearen inguruko gaiak azaltzeko (bere garaian bereganatu zuten hezkuntza sexuala dela eta (López, 2005). Gainera, prestakuntza gutxi izaten dute, hortaz, askotan ziurtasun eza handia dute gai sexualen inguruan hitz egiteko (López, 2005). Beraz, zerbait azaltzeko zail ikusten badute, haurrari azaltzea zaila egiten zaiela onartzea lagungarria da, haurrari ahal duten hoberen azaltzen saiatuko direla esanez, baina beti ere sexualitatearen inguruan ikuspegi positibo bat erakusten saiatuz (López, 2005).

## 5. eranskina. Irakaslearen papera.

Eskola ikasleen ongizateaz eta bizitzarako ikaskuntzaz arduratu behar da, posibilitatez eta arriskuz beterik dagoen gizarte batean (López, 2005). Eskola haurrak babesten dituen lekua, baloreez eta arau sozialez hornitzeko lekua, eredu egokiak eskaintzeko lekua eta pertsonarteko harreman egokiak bizitzeko lekua bihurtu da (López, 2005). Izan ere, sexu desberdineko hurrek elkar-bizitzeko eta konfliktoek dakarten jarrera bortitzak aldatzeko eta beste erantzun batzuk ematen ikasteko leku aproposa da, hurrei amorrusentimenduak biolentziarik gabe adierazten lagunduz (Morales eta Guijarro, 2003). Eskolak eskaini ahal dituen balore, elkarbizitza, eredu... guzti horien eragile nagusienetarikoak irakasleak dira.

Irakaslea gizartearen eta familiaren bitartekarietakoa da; Haur Hezkuntzan hurrekin afektuzko binkulua sortzen saiatu behar duena (Bolaños, et al., 1994). Binkulo horri esker ematen den harremana aprobetxatuz hurrari hezkuntza integrala eskaintzen saiatu behar da, hezkuntza sexuala barne. Irakaslearen papera oso garrantzitsua da eta bere eragina hurrekiko izugarria da, beraz hurren behar sexualak asetzeko hezkuntza egin nahi bada argi eduki beharko du bere papera hezkuntza sexualaren aurrean, eta horrek dakarren arduraz kontziente izan beharko du (Bolaños, et al., 1994).

Andaluziako Juntak 1999an argitaratutako dokumentuan, “Educación Afectivo-Sexual en la Educación Infantil. Material Didáctico”, irakaslearen papera honetan oinarritzen dela argitzen du:

“La labor del profesorado debe ir en la línea de contribuir progresivamente a que niños y niñas autorregulen sus conductas, adoptando normas de actuación social basadas en el respeto a las demás personas y no en la concepción de la sexualidad como algo sucio, agresivo, peligroso, que hay que ocultar” (Andaluziako Junta, 1999, 33.orr)

Hau da, hurrek haien jarrerak gizarteko errespetu arauetara pixkanaka erregulatzen joan beharko dira, baina inola ere ez, sexualitatea debekutzat hartuta, zikintzat edo arriskutsutzat hartuz (Magister, 2011). Horregatik, irakasleak bakoitzak bere sexuarekin eroso egoten, bere gorputza egoki arakatzen eta ezagutzen lagundu beharko die, bere sexualitatea askatasunez, segurtasunez eta beldur gabe adierazten lagunduz (Magister, 2011). Lagungarria ere bada, irakasleek hurren berezko manifestazio sexualak

ezagutzea, jokabide horiek abusu sexual baten adierazle diren edo ez baloratu ahal izateko (Gómez-Zapiain, d.g.).

Haurrek rol jolasak egiten dituzte, medikuetara eta aita-ametatan jolasten dute (sozialki beste pertsonaren gorputza arakatu eta ukitzea onartzen diren eremu bakarrak direla dakite). Irakasleak honelako manifestazio sexualen aurrean ez du era bortitzean edo errepresiboan jokatu behar, ez du manifestazio horiek helduen jokabideekin alderatu behar eta ez luke haurrak lotsarazi beharko (Ferrer 1988), haien sexualitatea bizitzen utzi beharko lieke.

Ikasleren batek manifestazio sexual bat besteen aurrean egiten badu, masturbatzea adibidez, irakasleak argi utziko beharko dio manifestazio sexuala ez dela txarra, baina pixkanaka nagusien arau morala barneratzen lagunduko dio, adibidez zera esanez: *“Gustatzen zaizula ikusten da, ondo da, nahi duzunean egin dezakezu, baina ez klasean. Plazatik biluzik ibili behar ez dugun moduan, ezin dugu horrela besteekin gaudenean horrela ukitu, bakarrik gaudenean egin dezakegu”* (López, 2005). Irakasleak manifestazio sexualetan esku hartu beharko du jolasetan manipulazioa, indarketa, obsezioa, pornografian edo abusu egoeretako jokabideak imitatzen dituztenean, sexu orala adibidez, eta eduki sexista eta oldarkorra eta hiztegi sexista agertzen dutenean (López, 2005). Esku hartze horretan jokabide hauek kontrolatu eta eratorria zein den aztertu beharko dute, beharrezko neurriak hartuz edo laguntza eskatuz: eskolako irakasleari, medikuari, eskolako psikologoari... (López, 2005). Abusu baten kasua izango balitz, prozesu osoan lagundu behar zaio haurrari (López, 2005).

Irakasleak esku-hartu behar duenean argi utzi behar du haurraren sexualitatea onartu egiten duela (López, 2005) eta leuntasunez, borondate onez, eta era naturalean jokatu beharko du, haurrak jolas horiekin zein emaitza mota bilatzen ari den aurkitzen saiatuz eta haurren bizipen sexualak errespetatuz, baina heziz (Ferran, 1988). Aipatutako egoera horietan jarrera osagai guztiak berreraikitzen<sup>10</sup> lagundu beharko dio haurrari. Dena den, beste manifestazio sexual batzuetan ere esku hartu beharko du. Adibidez, identitate sexuala iraunkorra ez bada, ez da arazo baten moduan hartu behar, baina haurrak bere sexuarekin eroso ez badago eta ideia hori hilabeteetan irauten badu irakasleak espezialista batekin kontaktuan jarri beharko du, Eusko Jarularitzak eskaintzen duen

---

<sup>10</sup> Haurrak jokabidea aldatzera lagundu, sentimendu, jokabide eta sinesmeten duen eragina izanda.

sexu- eta genero- aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzuarekin adibidez; hau da, Berdindurekin (Magister, 2011).

Irakasleek hurrek manifestatuko dituzten behar sexualak errespetatu behar dituzte, askatasunezko giroa sortu behar dute (hurrek adierazi ahal izateko) eta ikasitako jarrera sexistak lasaitasunez zuzendu beharko dituzte (Camarero, Redondo eta Urruzola, 1987).

Haurren interesei eta jokabideei naturaltasunez erantzun behar zaie, informazio objektiboa emanez, isiltasuna gezurra bezain kaltegarria dela kontuan hartuz (Magister, 2011). Ildo beretik, irakasleek eskaintzen duten hezkuntza sexualak baloreen transmisioan (higienea, errespetua, kritikotasuna...) eta harreman eta trebetasun interpersonalen sustamenean paper garrantzitsua jokatzen du (Magister, 2011). Irakasleak informazioa adin desberdinerara egokitu behar du, gezurrik gabe, egia esanez, naturaltasuna eta konfiantzazko giro eta klima atsegina sortuz. Gelan sexualitatearen inguruan ikuspegi positiboa bultzatu eta praktikan jarri behar du (Magister, 2011). Irakasleak kontziente izan behar du informazioa egokia ez bada, sexualitatearen bizipena negatiboa izan daitekeela, gaitasun afektibo-intelektualaren blokeoa<sup>11</sup>, beldurra, uzkurdura, intseguritate pertsonala, perbertsio sexuala... sortuz; hezkuntza sisteman eskubiderik oinarritzkoenaren ukapenaren emaitza dena (Villamarzo, 1982). Aldiz, informazioa egokia helaraziz, haurren autoestimu positiboa hazi egiten da eta gaitasun kritiko konstruktiboa bultzatu egiten da, beste gauza batzuen artean (Villamarzo, 1982).

Irakasleak haurren kuriositateari, araketa korporalari eta autoerotismoari errespetu sor die, agresio sexualekiko babesa eman, biografia sexual zoriotsua izaten lagundu, eta afektua eta identitate sexual eta genero identitatearen garapenari errespetua eman behar die (Gómez-Zapiain, d.g.).

Bi sexuei balore berdina eman beharko die, sexuekiko berdintasunean oinarritutako igurikapenak izan behar ditu, eta hurrei bi sexuetatik ikas dezaketela ikusarazi egin beharko die (Morales eta Guijarro, 2003). Haur guztiek, neska zein mutil izan, eskubide, gaitasun, aukera, ardura... berdintasuna, eta gaitasun desberdintasuna dutela onartu behar du irakasleak. Desberdintasun izateak aberasten gaituela erakutsi behar die eta sexu diskriminazioaren aurka egin behar du (Morales eta Guijarro, 2003). Irakasleak

---

<sup>11</sup> Afektuzko sentimenduak eta ondorioz, batera doazen sentimendu oldarkorren blokeoa.

bakoitza den modukoa izan behar duela erakutsi behar die, bakoitzaren burua onartzen eta besteena errespetatzen lagunduz (Morales eta Guijarro, 2003). Beraz, irakasleak bi sexuengan afektuzko jarrerak sustatu behar ditu, rol ez-estereotipatuak, konfiantza eta autoestimu positiboa garatzen lagundu behar die, eta sexuen arteko eta bi sexuek berdin tratatu behar ditu, berdintasunaren alde eginez (Camero, et al., 1987).

Hezkuntza sexual egokia emateko irakasleak haurren sexualitatea, adierazteko modua eta gorputz sexuatu batean bizitzeko modua onartu, haurrak entzun, interesa jarri, adierazten lagundu, haurrengan konfiantza izan, honi askatasuna eta bera bakarrik erabakiak hartzeko autonomia eskaini behar dio. Era berean, haurrak modu objektiboan informatu behar ditu, egia esanez, haienzako eredu egokia izan behar du, limiteak eta arauak jarri beharko die, beti ere haien intimitatea bizitzen eta besteen intimitatea errespetatuz, eta haurrak babestu<sup>12</sup> beharko ditu, konfiantza eta seguritatea eskainiko ez dieten jokabideak saihestuz, gehiegizko babes eman gabe (Morales eta Guijarro, 2003). Gainera, irudi sexual aske, kritiko eta enpatizatzailearen eredu izan behar du (Area eta Díaz, 2009).

Dena den, orain arte irakasleen jarrerarik egokiena zein izango litzatekeen azaldu bada ere, errealitatean irakasleek jarrera mota oso desberdinak izan ditzake (López eta Fuertes, 1993). Alde batetik jarrera kontserbatzaileagoa, eta beste alde batetik liberalagoa izan dezakete. Jarrera kontserbatzailea dutenek sexualitatea ugalketa dela uste dute eta kontrako iritziak izaten dituzte abortuarekiko, homosexualitatearekiko, dibortzioarekiko... Hezkuntza sexuala ematea onar dezakete, ezkontzarako hezkuntzan oinarritzen bada. Jarrera kontserbatzaile horren barruan lau jarrera nagusi bereiz daitezke:

- Tabutaziozko jarrera: Jarrera hau dutenek sexualitatea ezeztatzen dute eta ezkontza barruan ematen ez diren sentimendu sexualak, fantasiak, desirak eta jarrerak ezeztatzen saiatzen dira, errudun ez sentitzeko.
- Mendekotasunezko jarrera: Jarrera hau dutenek sexualitatearen gaiari beldurra diote eta autoritatetzat hartzen duten pertsonari sumisioa zor diotela uste dute. Hezkuntza sexuala irakastearekin bat etor daitezke, baina sexualitateaz hitz

---

<sup>12</sup> Inguru osasuntsu eta segurua eskaintzea da babestea, biolentziaz babestea, non hurrek beldurrik gabe esperientzia desberdinak bizi dezaketen, gero eta autonomia gehiago bereganatuz (Morales eta Guijarro, 2003).



egitea zerbait arriskutsua, zaila eta delikatu dela uste dute eta profesionalen esku (profesional erlijiosoak edo medikuen) gelditu behar duela uste dute; ondo eta txarto dagoena erakusteko.

- Naturalismo faltsua: Postura liberalak hartzen dutela dirudi, baina sexualitatea naturaltasunez tratatzeko zailtasunak eta beldurrak dituzte. Ez ditu aipatutako posizioak hartzen, eta aurreko jarrera desagokiak direla arrazoitzen du, baina ez du beldurra oraindik gainditu, eta adibidez, isiltasunarekin erantzuten du edo sexualitatearen gaiari garrantzia kentzen dio horretaz ez hitz egiteko.
- Jarrera kontserbatzaile integratua: Posizio kontserbatzaileak izaten dituzte abortuaren inguruan, dibortzioen inguruan... baina sexualitatea giza dimentsiotzat hartzen dute eta harreman afektibo finkoetan sexualitateak zentsua duela uste dute.

Jarrera liberala duten pertsonak sexualitatea ugalketara lotuta ez dagoela uste dute. Sexualitatea gizakiaren dimentsio bat dela uste dute, era askotara bizi daitekeena eta posibilitate anitzak dituena. Gai polemikoen aurrean legeak eta tradizioek ematen duten askatasuna baino gehiago eskatzen dute eta hezkuntza sexuala eskaintzearen alde egiten dute. Honetan ere, jarrera desberdinak aurki ditzakegu:

- Jarrera liberal individualista: Sexualitatearen arloan liberalismo politikoaren eta sozialaren printzipioak aplikatzen dituzte. Pertsona bakoitza eta bakoitzak nahi duena izaten da jokabide sexualak eta moralak erregulatu behar dituenak direla uste du. Hau da, subjektua nahi badu eta horrela libreki erabakitzen badu, ondo egina dago. Beraz, normalean ez ditu besteak kontuan hartzen. Jokabide sexuak erregulaziorik behar ez dutela uste dute.
- Jarrera liberal inposatzailea: Posizio kontserbatzailea bertan behera utzi duten pertsonak aldaketa baten ondorioz (unibertsitatean sartzean adibidez), eta ideia berrien alde egiten dute, aurreko posizioaren aurka eginez. Intolerantzia ematen da eta ez da kritikotasunez jokutzen, haien ideiak kostala ala kostala defenditzen dute, beste posizioak errefusatu. Hezkuntza sexuala instrumentalizatzen dute; adibidez, ezkontzaren aurka heziz.

- Jarrera liberal irekia: Sexualitatea gizakiaren errealitate bat dela uste dute, gizakiari posibilitate anitzak eskaintzen diona; ugalketa, plazera, sentimenduak, laztanak... Ugalketa aukeraketa librea izan behar dela uste dute eta plazera nahi denean lortu daiteke, inposaketa batean oinarritzen ez bada.

Irakaslearen jarrera liberal irekia izan behar du (López eta Fuertes, 1993); hots, irakaslearen jarrerak tabutazio/itxurazko permisibitateko jokabideetatik at egin, eta jokabide liberal irekira heldu behar dute (Area eta Díaz, 2009) ahalik eta hezkuntza sexual egokia eskaintzeko. Izan ere, irakaslearen jarrerarekin haurrari hezkuntza sexual jakin bat irakasten zaio.

Bere jarrera zein den arakatzear gain, irakasleak inguruaren azterketa bat egin beharko du (gizartea, familia eta haurrak) inguruak dituen beharrez kontziente izateko eta horrela zein hezkuntza sexuala planteatu behar duen ikusteko. Era berean, giza baliabideak, materialak eta zentroaren funtzionamendua berrikusi beharko ditu, errealitate berrira egokitzeko (Ferren, 1988). Dena den, hezkuntza sexuala emateko, irakasleak ez du bere metodologia zertan aldatu behar, bere jarrera, jokabideekin, esperientziekin, formakuntzarekin, hausnarketekin... edozein eredu edo proposamena materializatuz eta berrikusiz lor dezake hezkuntza sexual egokia (Andaluziako junta, 1999).

Modu berean, komenigarria da etapan arabera hezkuntza sexualaren helburu eta eduki egokiak aukeratzea; hezkuntza sexualeko programa desberdinak ezagutzea eta material eta programazio egokiak aukeratzeko gai izatea, era berean hezkuntza sexualerako programazioak egiteko eta aplikatzeko gai izanik, helburuak, edukiak, jarduerak eta ebaluzioak eginik eta gurasoekin kolaboratuz (López, 2005).

Irakasleak hezkuntza sexuala lantzeko zeharka (disziplinartekotasuna) eta era globalean egin beharko du (Magister, 2011). Irakasleak hurrei informazio objektiboa maila biologiko, psikiko eta sozialean eskaini beharko die, eta jarrera positiboak, errespetuzko eta ardurazkoak izan beharko ditu (Maio eta Alcaide, 2010).

Jolasak, jostailuak, ipuinak... haurren garapenean bitartekari moduan erabil daitezke, baina kritikotasunez aukeratu behar dira, erakusten duten ereduak analizatuz (Ferrer, 1988). Horiei esker, haurrek jolas sinbolikoaren bidez ideologia zehatz bat bereganatzen dutelako: jokabideak ikasten dituzte, haien esperientziak irudikatzen dituzte,

harremantzen ikasten dute, rolak irudikatzen dituzte... Irakasleak haur guztiei material guztia erabiltzeko eskubidea bermatu behar die eta haur guztien ekintzak eta emaitzak baloratu behar ditu (Ferrer, 1988). Ildo beretik, irakasleak apainketak, kartelak, eskolaren espazio banaketa, giro... mota kontuan hartu behar du (Camero, Redondo eta Urruzola, 1987).

Irakasleak elkarrizketa sustatu behar du, haurren garapen etapa bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu behar ditu, beldurrak eta gezurrak ezabatu behar ditu, eta mota honetako esaerak, adibidez, saihestu beharko ditu: *zakila ikutzen baduzu ilea hasiko zaitzu eskuan...* (López, 2005). Hori lortzeko hezkuntza sexuala hausnarketa eta argumentazioen bidez landu daiteke (Area eta Díaz, 2009).

Haurrak galdetzen duenari soilik erantzun behar zaio, egonezina transmititu gabe (Villamarzo, 1982). Aipatu bezala, haurra galdera jakin bat egiteko gai denean, galdera horren erantzuna entzuteko prest egongo da ere (Morales eta Guijarro, 2003). Baina erantzunek garapenera (garapen kognitibo eta emozionalera) egokituak izan behar dute, argiak eta ulerkorak direlarik.

Irakasleak egin beharreko interbentzioetan haurren garapen integralari begiratu beharko dio, jokabide diskriminatzaileak ezabatu beharko ditu, berdintasuneko baloreak sustatu behar ditu eta erakusten duen ereduaz eta bere lanaz kontzientzia hartu beharko du (Magister, 2011). Irakasleak bere sexualitatearen irudiaren inguruan hausnartzea eta horretaz kontziente izatea, horiek ez inposatzeko, komenigarria da.

Premiazkoa da, irakasleak sexualitatearekiko dituen jarrerak, sentimenduak, sinesmenak, iritzi eta esperientzia irizpide-ardatz moduan ez erabiltzea (López, 2005). Irakasleak ez du ikasleek bera bezala pentsatzea lortu behar, haurrek haien kabuz pentsatzeko gai izatea lortu behar du (Padrón, et al, 2009).

Irakasleak haurrek haien gorputza ezagutzen eta baloratzen ikastea sustatu behar du, horretarako gorputza intimitatean ukitzen eta arakatzen utzi, gorputzeko atalak izendatzen irakatsi (gorputz osoaren bisio integrala erakutsiz), gorputzen aldaketez eta beharrez kontziente izaten lagundu, osasuna zaintzen irakasten eta mugimendu askatasunaz gozaten lagundu behar die, neskentzako eta mutilentzako mugitzeko modu egokiago edo desegokiagorik ez dagoela argi utziz. Era berean haurrei gustatzen zaiena

eta ez zaiena azaltzen lagundu eta orientatu behar die: ezetz esaten irakatsi eta desira eta besteen gustuak ezagutzen eta errespetatzen lagundu behar die (Morales eta Guijarro, 2003). Horretarako irakasleak egian oinarritu behar du, naturaltasunez jokatu eta ikuspegi positiboa izan behar du sexualitatearen inguruan.

Irakasleak gainerako irakasleak eta familia sentsibilizatu behar ditu: estereotipoen aurka egiteko eta hurrei formakuntza integralago bat eskaintzeko sexu diskriminazio arazoak aitortu beharko ditu (Salguero, 2009).

Ikastetxe eta irakasleek gurasoekin debateak programatzea lagungarria da, non gurasoek espresa daitezkeen eta bere informazioa kontutan har daitezkeen eta formakuntza bereganatzen duten (Camarero et al, 1987). Ildo beretik, zentroko irakasle taldeak inplikatzeko lagungarria ere bada, bakoitzaren iritsiak errespetatuz. Elkarrekiko kolaborazioa ezinbestekoa baita zalantzarik gabeko hezkuntza sexuala eskaintzeko (Camarero et al, 1987).

Era berean, eskola eta familia arteko harremanaz gain, beste eremu hauetatik kanpoko laguntza ere eska daiteke (Camarero et al, 1987). Medikuen, sexologo, psikologo eta pedagogoen laguntzarekin guraso eta irakasle formakuntza eta laguntza lor daiteke.

Garrantzitsua da adostasun minimo batzuetara heltzea guraso eta eskolarekin egin behar den esku-hartzeari buruz (Ferren, 1988). Haur eta guraso dibertsitatea errespetatu behar da, eta ezin da ahaztu hezkuntza sexual egokirik ezin dela egin gurasorik gabe, ezta gurasoen kontra (López, 2005). Izan ere, hurrek haien sexualitatea era positibo eta naturalean ezagutzea aberasgarria da, ez dute besteek hori probokatu behar, baina giza sexualitatea garrantzitsuegia da destinoaren eskuetan soilik uzteko (Ferren, 1988).

Irakasleek zenbait zailtasunekin egingo dute topo, hezkuntza sexuala eskubide eta behar bat ez dela uste duten eskolek, praktikara eramateko arazoak, familiak ados ez egotea, eskola Haur Hezkuntzako programak egiteko prest ez egotea, irakasleen formakuntza urria... (López, 2009). Baina sexualitatea gizaki moduan osatzen gaituen eta gure izatearen parte dela ulertzen bada, erraza da hezkuntza sexuala haurren garapenerako beharrezkoa dela ikustea (Morales eta Guijarro, 2003).

Laburbilduz, gaur egungo egoera ikusita eta sexualitatea haurren duen garrantzia ikusita, beharrezkoa da irakasleek aipatutakoa kontuan hartzea. Hots, irakasleak

hurrengo guztiazk arduratu beharko litzateke: estereotipo eta rol sexistak ez transmititzeaz, mikromatxismoak saihesteaz, hizkuntza ez-sexista zaintzeaz, haurrentzako eredia dela kontuan hartzeaz, eduki, metodologia, material eta espazio egokiak, ez sexistak, aukeratzeaz, genero ikuspegitik bere jokabideen inguruan etengabeko hausnarketak egiteaz, familiarekin parte hartzea (familia eta eskolaren arteko koherentzia) eta bi sexuak onartu eta baloratu eta bion ekarpenak baloratzeaz. Era berean kulturaren binarismoa (“sexu indartsua vs sexu ahula”) hautsi, zereginen banaketa eta bi sexuen arteko kooperazioa sustatu behar du, laguntasuna eta berdintasuna suspertu behar du, bakoitzaren ezaugarri desberdinak errespetatuz, espiritu kritikoa eta elkarbizitza sustatu beharko du, haurren aurkikuntza sexualak onartzen lagundu beharko du, binkulu afektibo desberdinak (laguntasuna, familia mota desberdinak...) errespetatzen irakatsi, eta horiekin batera hurrei “ezetz” esatera irakatsi eta autoestima eta autokontzeptuaren eraketan lagundu behar die, estereotipoak saihestuz.

**6. eranskina. Hezkuntza sexualak Espainiako 1978ko konstituzioarekin, LOMCEekin eta curriculumarekin duen lotura zehatza.**

1- Espainiako 1978ko konstituzioa:

**1. artikulua**

1. Espainia Eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko batean eraikitzen da, eta beraren balore nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, berdintasuna eta politika aniztasuna.

*Artikulu honetan, lanean azaldu bezala, demokraziaren, askatasunaren, justiziaren, berdintasunaren eta aniztasunaren baloreak Espainiako balore nagusiak direla azaltzen da, hezkuntza sexualarekin harremanetan dauden baloreak hain zuzen ere.*

**9. artikulua**

2. Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osotzen dutenena benetako eta eragileak izan daitezen; baita galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.

*Botere publikoek, beraz eskolak, berdintasuna berdintasunerako baldintzak ezarri behar dituztela dio.*

**10. artikulua**

1. Pertsonaren duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinekoak, nortasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta besteekiko eskubideak ordenu politikoa eta giza bakearen oinarriak dira.

*Haur Hezkuntza haurren nortasuna garatu egiten da, eta sexualitateak haurren nortasunaren garapenean eragina dauka; beraz, haurren nortasun garapen askea errespetatzea eta beraz, haurren garapen afektibo-sexuala errespetatzea eskatzen du.*

#### **14. artikulua**

Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da diskriminaziorik onartu, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik.

*Sexu desberdinen arteko berdintasuna aldarrikatzen du, hezkuntza sexuala egiteko kontuan hartu beharko dena.*

#### **27. artikulua**

2. Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.

*Haurren giza nortasuna osoa garatzea du helburutzat, beraz, eskolak hezkuntza afektibo-sexuala eskaini beharko du garapen hori osoa izan dadin, errespetuzko eta eskubide eta askatasunak kontuan hartuz.*

#### **43. artikulua**

1. Osasun babesaren eskubidea aitortzen da.

*Haur Hezkuntzatik hezkuntza afektibo-sexuala landuz, haurraren osasun integrala ere zaindu egiten da, osasun horretan Espainiako konstituzioak ere bere ardura hartzen du.*

LOMCE, 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa:
--

## Hitzaurrea I

Gizarte demokratiko baten erronka da ikasle guztiek euren talentuak eskuratu eta adierazi ahal izateko baldintzak sortzea, hau da, hezkuntza kalitatezkoa izatea lortzeko konpromisoa hartzea, berdintasunaren eta justizia sozialaren euskarria baita.

*Espainiar estatuaren erronka kalitatezko hezkuntza bat eskaintzea da, haurrek gaitasunak bereganatu eta adierazi ahal izateko. Kalitatezko hezkuntza batek berdintasun eta justizia soziala bermatzen duela esaten da; beraz, berdintasuna eta justizia soziala emateko hezkuntza sexualak bere papera jokatzen du, eskoletan berdintasunean oinarritutako jarreretan, eta hortaz, justizia sozialean ere hezteko.*

Hezkuntza-sistema kalitatezkoa, inklusiboa, integratzailea eta zorrotza denean bakarrik bermatzen da aukera-berdintasuna, eta bidea ematen du ikasle guztiek euren gaitasunak erabat garatzeko. Kalitatea oinarri hartuta bakarrik bete daiteke Espainiako Konstituzioaren 27.2 artikulua ezartzen duena: «Giza nortasuna oso-osorik garatzea da hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz»

*Aukera berdintasuna bermatuz, inklusioa, kalitateko hezkuntza eta ikasleen gaitasun garapena lortzen da. Hortaz, hezkuntza sexualak horretan bere zeregina duenez eta giza nortasuna integralki garatzeko helburutzat duenez, oinarrizko eskubidetzat hartzen da.*

## XIV

2002ko urriaren 16an Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei Herritartasun Demokratikorako Hezkuntzari buruz egindako (2002) 12 gomendioak dio herritartasun demokratikorako hezkuntza funtsezkoa dela gizarte libre, tolerante eta bidezko bat sustatzeko, baita askatasunaren, aniztasunaren, giza eskubideen eta legearen



inperioaren balioak eta printzipioak defendatzen laguntzen duen gizartea sustatzeko ere, horiek izanik demokraziaren oinarriak.

Espainiako hezkuntza-sistemaren printzipioetako bat da honako hauen aldeko balioak zabaldu eta praktikan jartzea: askatasun pertsonala, erantzukizuna, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia; halaber, diskriminazio mota oro gainditzen lagunduko duten balioak transmititzea eta praktikan jartzea. Gure hezkuntza-sistemaren beste xede bat da herritartasuna gauzatzeko eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartzeko prestatzea, jarrera kritikoarekin eta arduratsuekin eta jakintzaren gizartearen egoera aldakorretara egokitzeko gaitasunarekin parte hartzeko, hain zuzen.

*Hezkuntza gizarte librea, tolerantzia, aniztasunaren defendatzaile... izateko funtsezkoa dela dio, beraz, hezkuntza sexuala egitea beharrezkoa da, hezkuntza horrek aniztasuna, tolerantzia, askatasuna, berdintasuna... sustatzen duelako.*

*Gainera, hezkuntza-sistemaren printzipioak sustatzeko hezkuntza sexuala beharrezkoa da; izan ere, hezkuntza sexualari esker aipatutako balioak sustatzen dira.*

## **XV**

«b) Ekitatea, hezkuntzaren bidez nortasuna erabat garatzeko aukera-berdintasuna bermatuko duena; hezkuntza-inklusioa; eskubide- eta aukera-berdintasuna, bazterkeria gainditzen lagundu eta hezkuntzarako irisgarritasun unibertsala bermatzen dutenak eta desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak (desgaitasunen ondoriozkoak, bereziki) konpentsatzeko tresna direnak»

*Hezkuntza sexualaren bidez ekitatean hezten dira haurrak berdintasuna bermatuz, eta desberdintasun pertsonalekiko, kulturelekiko, ekonomikoekiko eta sozialekiko errespetua sustatuz.*

1) Eskolan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzen duten balioak garatzea, baita genero-indarkeria prebenitzea ere.

*Hezkuntza sexualak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzen duten balioak garatzen laguntzen du, baita genero-indarkeria prebenitzen.*

## **2 bis artikulua. Espainiako hezkuntza-sistema.**

4. Espainiako hezkuntza-sistemaren jarduna printzipio hauen arabera da: kalitatea, lankidetzaren, ekitatea, irakasteko askatasuna, meritua, aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza, baliabide publikoak esleitzean eraginkortasuna, gardentasuna eta kontu ematea.»

*Jarduna printzipio horien arabera bada, hezkuntza sexualak eskolan bere eginkizuna dauka.*

## **40. artikulua. Helburuak.**

d) Beren kabuz ikasten eta taldean lan egiten, eta bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta sozialaren eremu guztietan gatazken prebentzioan eta gatazka horien konponbide baketsuan prestatzen, genero-indarkeria prebenitzeari arreta berezia jarrita.

*Haurrek dimorfismo sexualean oinarritutako taldeak egiten dituzte eta batzuetan beste sexua baliogabetzen dute. Hezkuntza sexualari esker talde lan egiten eta eremu guztietan konfliktuak biolentziarik gabe adierazten irakasten da. Beraz, txatal honetan ere hezkuntza sexualaren beharra azpimarratzen da.*

Ehun eta bi. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, berrogeita batgarrena; honako hau dio: **«Berrogeita batgarren xedapen gehigarria».**

*Gatazkak prebenitzea eta modu baketsuan konpontzea, eta demokrazia eta giza eskubideak defendatzen dituzten balioak.*

Oinarrizko Hezkuntzako etapetako curriculumean aintzat hartu beharko da bizitza pertsonal, familiako eta sozialaren eremu guztietan gatazkak prebenitzen eta modu baketsuan konpontzen ikastea eta demokrazia eta giza eskubideak defendatzen dituzten

balioak ikastea. Genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta juduen holokaustoa gertaera historiko gisa aztertzea barne hartu beharko ditu curriculumak, edonola ere.

*Honetan ere konfliktuei aurre egiteko hezkuntzari egiten zaio aipamena, genero-indarkeriari begirunea izanik. Txikitatik bereganatzen dugun hezkuntza sexuala, helduaroko oinarria da, beraz, honelako jarrerak txikitatik hezkuntza sexualari esker prebenitu egiten dira. Horregatik da Haur Hezkuntzan hezkuntza sexuala lantzea hain garrantzitsua, honelako hezkuntza idarkeriaren arazoa bertan bera uztea baitu helburutzat.*

### **Berrogeita hamazazpigarren artikulua.**

n) «Ikastetxeko elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, tratu-berdintasuna, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 84.3 artikuluan aipatzen diren kausak direla-eta diskriminaziorik ez eragitea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta genero-indarkeria saihestea bultzatzen duten neurriak eta ekimenak proposatzea.»

*Hezkuntza sexuala elkarbizitza kontuan hartzen du, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu nahi du, bioi tratu eta eskubide berdintasuna eskainiz. Hezkuntza sistemaren betebeharren artean diskriminaziorik ez eragitea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta genero-indarkeria saihestea bultzatzen duten neurriak eta ekimenak proposatzea dago, eta hezkuntza sexualak bete betean erantzuten die betebehar horiei.*

### **124. artikulua.** *Antolamenduari, funtzionamenduari eta elkarbizitzari buruzko arauak.*

1. Ikastetxeek elkarbizitzarako plan bat prestatu eta urteko programazio orokorrean sartu beharko dute. Planak honako xede hauei begira programatzen diren jarduera guztiak jasoko ditu: ikastetxeko elkarbizitzarako giro egokia sustatzea; ikasleen eskubideak eta betebeharrak zehaztea eta eskubide eta betebehar horiek bete ezean indarrean den araudiari jarraituz eta ikasleen egoera eta baldintza pertsonalak kontuan hartuz zer zuzenketa-neurri ezarriko diren; gatazkak modu baketsuan konpontzeko

jarduerak, arreta berezia jarritz genero-indarkeria prebenitzeko eta berdintasuna eta bazterkeriarik eza lortzeko jardueri.

2. Ikastetxeetako elkarbizitza- eta jokabide-arauak derrigor bete beharko dira. Neurriok zehaztu egin beharko dituzte, gainera, ikasleen betebeharrak eta programazioa bete ezean zer zuzenketa-neurri ezarriko diren ikasleen egoera eta baldintza pertsonalak aintzat hartuta.

Zuzenketa-neurriak hezteko eta berreskuratzeko ezarriko dira, gainerako ikasleen eskubideekiko errespetua bermatu behar dute, eta hezkuntza-komunitateko kide guztien harremanak hobetzeko helburua izango dute.

Zuzenketa-neurriak hutsekiko proportzionalak izango dira. Oso hutsegite larriak izango dira hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen duintasun pertsonalaren aurkako jokabideak, generoan, sexu-orientazioan edo -identitatean, arrazan, etnien, erlijioan, sinesmenean edo desgaitasunetan oinarritutako diskriminazio edo eraso bat jatorri edo ondorio duten jokabideak, edo ezaugarri pertsonalengatik, sozialengatik edo heziketarekin loturiko ezaugarriengatik ahulenak diren ikasleen kontrako jokabideak; zuzenketa-neurria, kasu horietan, ikastetxetik aldi baterako edo behin betiko kanporatzea izango da.

Hutsegite arinak egiteagatik zuzenketa-neurriak ezartzeko erabakiak berehala betearaztekoak izango dira.

*Txatal honetan elkarbizitza osasuntsua aurrera eramateko arauak eta xedeak aipatzen dira, eta horiek antolatzeke eta funtzionatzeko moduak. Genero-indarkeriari, ikasleen eskubideei, ikasleen egoera pertsonalari, errespetuari, elkarbizitzari eta diskriminazioak penalizatzeari egiten dio erreferentzia batik bat. Hain zuzen ere hezkuntza sexualak kontuan hartzen dituena. Argi eduki behar da hezkuntza sexuala ez dela elkarbizitza soilik. Beraz, nahiz eta elkarbizitza planaren barruan planteatu, hezkuntza sexualean oinarritutako plan bat ere sortu beharko litzateke zentroan. Hezkuntza sexuala elkarbizitzarekin harremanean dago, baina heziketa desberdina eskatzen dute biek, beraz, nahiz eta kontaktu zuzenean egon behar duten, ez dira heziketa berdinak.*

**127. artikulua.** *Eskola-kontseiluaren eskumenak.*

g) Ikastetxeko elkarbizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, tratu-berdintasuna, lege organiko honetako 84.3 artikulua aitpatzen dituen arrazoiengatiko bazterkeriarik eza, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta genero-indarkeria saihestea bultzatzen duten neurriak eta ekimenak proposatzea.

*Hau da, hezkuntza sexualaren ardura guztia ez dago soilik irakaslearen eskuetan, eskola-kontseiluak ere hezkuntza sexualaren arduraduna ere bada. Izan ere, eskolako kide guztien elkarlanean aritu behar du, premiazko hezkuntza sexuala eskaintzeko.*

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa:

**Xedapen orokorrak. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila.**

Hezkuntzaren lehen xedea da haurren garapen osoa lantzea dimentsio eta alderdi guztietan, familiekin gertuko lankidetzarekin. Erantzukidetasuna, lankidetzaren eta elkarren onarpena funtsezko jardun-oinarriak dira irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak lantzeko.

*Heziberrik haurren garapen osoa lantzea bilatzen duenez hezkuntza sexuala barnean hartu beharko du, eta haurren sexualitatean hain garrantzitsua den onarpena eskatzen du.*

Proiektu instituzionalak lantzeko, ez da hutsetik hasi behar, ibilbide luze eta emankorreko hezkuntza-esperientzia ugariak baliatuta baizik; esaterako, elebitasunaren eta eleaniztasunaren ingurukoak, ikaskuntzaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien ingurukoak, aniztasunaren trataerari edo bizikidetzari eta hezkidetzari buruzkoak eta genero-indarkeria prebenitzera bideratutakoak.

*Eskolek proiektu instituzionalak lantzen dituztenean aniztasunaren trataera edo bizikidetzen eta hezkidetzari buruzko eta genero-indarkeria prebenitzera bideratutako proiektuak erabiltzea gomendatzen du.*

Gizarteak eta hezkuntza-sistemak, Haur Hezkuntzatik, aniztasunari nola erantzun behar dieten adierazten du inklusioaren kontzeptuak. Heziketaren ardura, orain arte ikaslea zuzenean artatzen duen profesionalaren esku soilik egon dena, komunitate osoarena izatera pasatu da.

*Hezkidetzaren ardura, eta hortaz hezkidetzaren barruan sar daitekeen hezkuntza sexuala, komunitatea eta eskolaren ardura da, eta aniztasunari erantzun behar dio.*

### **3. artikulua.– Haur Hezkuntzaren xedea.**

1.– Haur guztien garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzea da Haur Hezkuntzaren xedea, garapen horren dimentsio guztietan.

*Haur Hezkuntzako lehenengo xede moduan aurren garapen osoa lortzea da, hortaz hezkuntza sexuala barnean hartu beharko du, sexualitatea garatzen joaten den haur dimentsio bat delako.*

2.– Hau egin behar da Haur Hezkuntzaren xede hori erdiesteko:

a) Familiekin lankidetzan jardunda, haurraren garapen osoa landu behar da, haurraren ongizate psikikoari eta fisikoari, sozializazioari eta heziketari erreparatuta, haurraren eskubideak babestuz eta haren potentzialtasun guztiak garatuz.

b) Desberdintasunak prebenitu eta gainditzeko heziketa sustatu behar da, eta ahalegin berezia egin behar da egoera sozial eta pertsonal ahulak bizi dituzten haurrei arreta emateko eta ekitatea bilatzeko.

*Bigarren xede honetan ere haurren garapen osoa bilatzen da, hezkuntza sexueralako hain garrantzitsua den familiekin lankidetzan aritzea bilatzen da eta haurren ongizate integrala bilatzen da, orduan, ongizate sexuala ere. Gainera, desberdintasunak eta hortaz desberdintasun sexualak gainditzeko heziketa sustatu behar dela aipatzen du.*

*Hau da, berdintasunean oinarritutako hezkuntza, hain zuzen ere, hezkuntza sexualak sustatu beharko lukeena.*

Norberaren identitatea eraiki eta ingurune fisiko eta soziala ezagutzeko eremuan, haurren garapenari dagozkion alderdi hauek biltzen dira: nork bere burua ezagutzea, nork bere buruaren irudia osatzea, pertsona-nortasuna eraikitzeke prozesua, eta autonomiaren garapena. Horiek guztiak ingurune fisikoarekiko eta sozialarekiko elkarrekintzan garatzen dira, jolasaren eta esplorazioaren bidez. Horrela jokatuta, bere burua ezagutzen du haurrak, bai eta besteak ere, eta inguruan duen errealitatea deskubritzen du.

*Heziberrik norberaren identitatea eraiki eta ingurune fisiko eta soziala ezagutzeko eremua proposatzen du, eremu hori lantzeko hezkuntza sexuala premiazkoa da; sexualitatea haurren nortasunean atxikita dagoen osagai bat delako.*

3.– Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko Legearen arabera, ikastetxeetako Hezkuntza eta Curriculum Proiektuek kontuan izan behar dute:

a) Balioen araberako hezkuntza, zuzenbideko funtsezko printzipio, eskubide eta askatasunekin bat, bereziki aniztasunaren errespetua eta inor ez baztertzea (jaioterri, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijio, sineskera eta ideologiagatik edo beste edozein egoera edo ezaugarri pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik).

*Ikastetxeko hezkuntza curriculumean dibertsitate sexuala errespetatu eta berdintasuna agertu behar dela adierazten du.*

4.– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatzen eta zehazten da Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta programazioetan, Antolakuntza eta Jarduera Arautegian edo Barne Arautegian, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan, Aniztasun Planean, Tutoretza Planean, Bizikidetzaren Planean, Hezkidetzaren eta Genero Indarkeria Planean, eta Ikastetxearen Prestakuntza Planean.

*Ikastetxeko Curriculum Proiektuan eta programazioetan ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan deskribatzen diren planak; Bizikidetzaren Plana, eta Hezkidetzaren eta Genero Indarkeria Plana adibidez, aurrera eraman behar dira.*

2.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailaren prestakuntza-ekintzek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

c) Hezkidetzak, aniztasun afektibo-sexuala, eta hezkuntza-babes bereziak behar dituzten kolektiboentzako arreta egokia sustatzeko hezkuntza inklusiboa garatzea.

d) Erantzukizun soziala duten profesionalak trebatzea, kritikoak baina proaktiboak eta sortzaileak aldaketen aurrean.

*Irakaslearen prestakuntza eta prestatzen dituen ekintzek Hezkidetzak, aniztasun sexuala, eta hezkuntza-babes bereziak behar dituzten kolektiboentzako arreta egokia sustatzeko hezkuntza inklusiboa garatu behar du. Ildo beretik, irakasleek aldaketa sozialen aurrean erantzuleak izan behar dute. Hori dela eta, gizartean oraindik dagoen diskriminazio sexualari, familia-mota berriei... erantzun behar die.*

### **23. artikulua.– Aniztasunari erantzuteko neurriak.**

1.– Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar du. Halaber, ikasle guztien oinarrizko kompetentzien garapen gorena lortzera bideratutako arreta espezializatua bermatu behar du.

2.– Aniztasuna tratatzeko neurriek ikaslearen hezkuntza-premiak asetzeko izan behar dute xede, ingurune normalizatu eta inklusiboan. Neurriek, halaber, ikasleen ikasteko interesak, motibazioak eta kompetentziak hartu behar dituzte kontuan, eta, edonola ere, Haur Hezkuntzako ikasleen irteera-profilerako ezarrita dagoen kompetentzia-maila lortzeko bideak aurreikusitakoak behar dituzte.

*Honetan, haurren desberdintasun sexualak errespetatu eta ase behar direla aipatu daiteke, inklusioari eta aniztasunari begirunea izanda. Aipatzekoa da ere, Heziberrik Hezkuntza sistema hobetzeko planean hartu beharreko neurri moduan aniztasuna ere aipatzen duela.*

### **Elkarbizitzarako kompetentzia**

Eta honetan, familiatik eskolara igaroz, handitu eta zabaldu egiten da haurren ingurunea. Gizartean hartu-emanak izateko aukerak handitzen zaizkie, eta horrek bide



ematen die pertsonekin harremanak izateko, lankidetzan aritzeko eta elkarrekin bizitzeko.

Ingurunearekin eta beste haur batzuekin hartu-emanak izanda, hurbileko duten inguruan integratuko dira eta, arian-arian, gai izango dira pentsamendu-prozesuak lantzeko, erabakiak hartzeko, arazo-egoerak ebazteko, errealitatea eta bizi duten mundua ezagutzeko, eta baliabide kognitiboak gero eta era landuagoan eta konplexuagoan erabiltzeko.

Hori horrela izango baldin bada, egoera hauek planteatu behar zaizkie haurrei: norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta gogoak modu asertiboan adierazi, eta, era berean, gainerako pertsonen sentimenduak, pentsamenduak eta desirak adi entzuteko aukera ematen duten egoerak; taldean ikasteko eta lan egiteko egoerak, nor bere gain hartzeko norberari dagozkion ardurak eta elkarlanean aritzeko helburu komun bati begira; giza eskubideei dagozkien printzipio etikoak eta bizikidetzarako gizarte-aztura oinarrizkoen ondoriozko arau sozialak betez jokatzeko ikasteko egoerak; eta gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzeko aukera ematen duten egoerak.

*Zehar-kompetentzia bezala elkarbizitzarako kompetentzia aipatzen du Haur Hezkuntzako xedeekin bat eginez. Kompetentzia honek hezkuntza sexualarekin bat egiten du, haurrek sexualitate aniztasun batean elkarbizitzen egongo direlako eskoletan, eta kompetentzia honek eskatzen duen moduan, gainerako pertsonen sentimenduak, pentsamenduak eta desirak... adi entzuteko aukera eman beharko zaie haurrei.*

### **Norbera izaten ikasteko kompetentzia**

Adin horietan, berebiziko garrantzia dute norberaren irudia eraikitze bide ematen duten egoerek eta ikaskuntzek, baita beraien burua eta ingurunea ezagutzeko, balioesteko eta kontrolatzeko bide ematen dutenek ere.

Oinarrizko zehar-kompetentzia eta kompetentzia espezifiko guztietan esku hartzen du «izaten ikasteak» eta autoerregulazioko prozesuak dira esku-hartze horren bitartekari; hau da, kontzientziaren prozesuak eta oinarrizko kompetentzia bakoitzari dagozkion pentsamenduak, hitzak eta ekintzak erregulatzeko prozesuak. Txanpon beraren bi aldeak

dira kompetentea izatea –proposamen honetan adierazten den moduan ulertuta– eta, autoerrealizazioaren bidetik, norbera izatea.

Hausnartzeko gaitasuna izatea funtsezkoa da autoerregulaziorako gaitasuna eskuratu eta nortasuna eraikitzekeo prozesuan, eta ezinbestekoa da, era berean, norberaren sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez jabetzea. Haurrak pixkanaka bereizi behar ditu barneko eta kanpoko munduak, eta garapen pertsonalaren dimentsio ugariak eraikitzen lagundu behar dio helduak haurrari; hala nola, hitzezko eta hitzik gabeko lengoaiak, ikasteko prozesuak eta haurraren estilo kognitibo propioa, portaera sozial eta morala, motibazioa eta gogo-indarra, gorputzaren funtzioak eta gorputz-irudia, emozioak, haurrak bere buruaz duen kontzeptua, autoestimua eta autonomia.

*Norbera izaten ikasteko zehar kompetentzia ere Haur Hezkuntzan garatu beharreko kompetentzia bat da. Beraz, haurren sexualitateari garrantzia eskaini beharko zaio, harren autoestimuan, autoezagutzan eta bakoitzaren izateko moduaren zati bat delako.*

### **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia**

Sentimenduak eta emozioak adierazi eta bizipenak izan ahala, pertsonak gero eta gehiago ezagutzen dute beraien burua. Adierazpen eta bizipen horien bidez harreman eta lotura eraikitzaileak ezartzen dira beste pertsona batzuekin eta ingurunearekin, entzuteko, azalpenak emateko eta elkarrizketan aritzeko ahalmenak lantzen dira, eta komunikazio-trukerako arau eta gizarte-ohiturak betetzen ikasten da.

*Oinarrizko kompetentzia espezifikotzat hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia hartzen du; haurrek euren sexualitatea adierazteko beharrezkoa izango den kompetentzia.*

### **Kompetentzia sozial eta zibikoa**

Haurrek gizarte-errealitatea ulertzeko bidea urratzen dute familian eta eskolan prestutasunez, errespetuz, elkarlanean eta ekimenez parte hartzen dutenean, genero-diskriminaziorik gabe. Honako jardun hauek landu behar dira bizikidetzarako trebetasun sozialak eskuratzeko gizarte plural eta demokratikoetan: norberaren inguruko esparru

guztietan gogoz eta arduraz parte hartzea, jokabide egokiak eta desegokiak bereiztea, gatazkak bide baketsuetatik konpontzea, norberaren iritziak adierazi eta defendatzea, eta gainerako pertsonen iritziak errespetatzea.

*Oinarrizko kompetentzia espezifikotzat ere kompetentzia sozial eta zibikoa hartzen du; honi esker, haurrek errespetuz eta elkarlanean jarduten ikasteko, genero diskriminazioaren aurka egin ahal izateko eta jokabide egokik, berdintasunean oinarritutakoak, garatzeko garrantzitsua da.*

### **Kompetentzia motorra**

Haurrak, jarduera motor kontzientearen bidez, bere nortasun propioa eraikitzen du, bere gorputza ezagutzen du eta hura adierazpen-bitarteko moduan erabiltzen, gorputz-egitura osatzen du, denbora-errealitatea bizi du, eta kanpo-munduz eta gainerako pertsonekin harmonian konpartitu behar duen espazioaz jabetzen da.

Kanpo-munduan «den bezala» adierazteko aukera ematen dio gorputz-adierazpenak haurrari, eta horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen ditu. Baliabide horien bidez, ideiak eta emozioak adierazten ditu, eta egokitasunez interpretatzen eta balioesten ditu gainerako pertsonen adierazpenak.

*Garrantzitsua da ere, haurrek haien gorputza ezagutzea mugarik eta taburik gabe, kompetentzia honetan lortu nahi dena lortzeko: haurrek diren bezala agertu ahal izateko.*

### **2.– Esperientzia-eremuak**

Haurrak ingurune fisikoarekin, ingurune naturalarekin eta, batik bat, gizartearekin dituen hartu-emanen harian eraikitzen du nortasun pertsonala. Gorputza, zentzumenak eta komunikatzeko eta adierazteko moduak erabiltzen ditugu ingurunearekin hartu-emanak izateko, eta horien bidez osatzen dugu gure eraikuntza pertsonala. Eraikuntza hori emaitza eta, aldi berean, ezinbesteko aurre-baldintza da ingurunearekin hartu-emanen aritzeko prozesu dinamiko horretan, komunikazioa eta errealitatearen errepresentazioa edo adierazpena bitartekotzat hartuta.

Nortasun propioaren eraikuntza ezinbestean dago loturik ingurunearekiko hartu-emanekin eta errealtatearen komunikazioarekin eta errepresentazioarekin; horrenbestez, bi esperientzia-eremu hauek barne hartzen ditu: «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagutza» eta «Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» esperientzia-eremu.

*Alderdi horiek garatzea eta bi esperientziak kontuan hartzea beharrezkoa da ere, haurrek haien sexualitatea bizitzeko eta adierazteko ezinbestekoak dira.*

### **1.- Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua**

Pertsona-nortasunaren gainean eta ingurune natural, fisiko eta sozialaren gainean gero eta ezagutza doituago bat eraikitze bidea adierazten du esperientziaren eremu honek. Bide hori urratzeko, errealtatearen eta bere buruaren gaineko irudi konkretu bat osatu behar du haurrak, ingurunearekiko partaidetza-sentimenduak landu behar ditu eta errespetu, interes eta balioespenerako jarrerak izan behar ditu haren elementuekiko.

Norberaren gorputza ezagutzea da, haurrentzat, pertsona den aldetik bere burua ezagutzeko lehen erreferentea, baita «ni» nozioa eta bere buruaren gaineko irudia osatzekoa ere.

Norberaren gorputza eta bere aukerak eta mugak ezagutu, kontrolatu eta menderatu behar dira nortasuna eraikitze prozesuan, eta ezinbestekoa da gorputza bere osotasunean eta atalka ezagutzea, hura koordinatzea, haren kontrol dinamikoa egitea eta zeregin oro betetzeko izan behar diren manipulazio-trebetasunak izatea.

Adin horietan ekiten zaio sexu eta generoko nortasuna eraikitzeari, eta biak bereizi ezean, gizarteak egindako hautuak barneratzen dira, gizon edo emakume izatearen ondorio ezinbesteko direlakoan. Horrenbestez, premiazkoa da haurra hartuko duen eskolak, esku-hartze hezitzailearen plangintza egitean, sexualitatea bizitzeko aukera ematea eta bizipen horren haria nork bere burua deskubritzea, jakin-mina, topaketa eta gozamina izatea.

Haurrak kalitatezko lotura afektiboak ezartzen baldin baditu inguruan dituen erreferentziatzko pertsona helduekin eta heldu horiek segurtasun afektiboa ematen baldin

badiote, haur horrek hartu-emanak izateko eta errealitateak nola funtzionatzen duen ezagutzeko eta ulertzeko jakin-mina adieraziko du.

Nork bere burua zaintzen ikasteko, elikaduraren, garbitasunaren, ariketa fisikoaren, atsedeenaren eta segurtasunaren gaineko jokabide-ildo egoki eta osasungarriak eskuratu behar dira pixkanaka.

Hezitzaileak erreferentzia-esparru egonkor eta afektiboa eman behar die haurrei, eta haurrek entzuten zaiela sentitu behar dute esparru horretan; era berean, norberaren beharrian eta gogoak ase eta erregulatzeko ohitura sozialak eskuratzen lagundu behar die, eta horrekin batera, haien ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko laguntza eman behar die.

Eremu honetako eduki nabarmenak dira nortasun propioaren eraikuntza, hurbileko ingurune natural eta sozialak, haien elementu fisikoak, elementu horien arteko erlazioak eta ingurune horietan eratzen diren antolamenduak, rolak eta harreman sozialak. Kontuan izango ditugu, era berean, gizarte-komunikabideen bidez ikasgelara iristen diren ingurune edo erreferentzia urrunekoak, ikasleen familiari, bidaiei edo bestelako egoerei lotutakoak, haurren arreta erakarri eta ingurune horiek ezagutzeko interesa pizten duten neurrian.

Haurren jakin-min eta interes handia pizten dute ingurune naturalak eta haren baitako izaki eta elementuek. Naturako elementuekin izaten dituen bizipenak eta elementu horiekiko gogoeta gidatuak bitarteko izango dira haurrentzat, pertsona helduen laguntzarekin, naturako zenbait fenomeno eta haien adierazpenak eta ondorioak beha ditzan, eta, pixkanaka, izaki bizidunak ezagutzeari ekingo dio. Era berean, izakien artean ezartzen diren erlazioak, erlazio horien ezaugarriak eta izaki horien bizi-funtzio eta -zikloetako batzuk ezagutzen hasiko dira.

Gertuko ingurune soziokulturala estimulu-iturri bat da adin horretako haurrentzat, haien arreta pizten baitu eta txikitatik izaten baita haien interesgune nagusia. Etapa honetan, familiako, eskolako eta komunitateko partaide direla ikasten dute pixkanaka haurrek, hau da, hezten diren ingurune sozialeko partaide direla.

Haurren hezkuntzak gero eta esperientzia zabalagoak izateko aukera emango die haurrei eta, haien bidez, pertsonak eta pertsonen arteko harremanak ezagutzeari ekingo diote. Horren bidez, loturak sortuko dituzte pertsonekin eta konfiantza, empatia eta

atxikimenduko jarrerak landuko dituzte, haien sozializazioaren oinarri direnak. Partaidetza, lankidetzak, negoziazioa eta gatazka dira gizarte-harremanen oinarri, eta aukera paregabea ematen dute gizarte-ikaskuntza, pertsonen arteko harremanak eta bizikidetzak lantzeko.

Kultura-aniztasunaren bidez, gizarte-usadio eta -ohitura askotarikoak eta haien inguruneko kultura-eremuak ezagutzen dituzte haurrek, ikuspegi ireki eta integratzailearekin. Hori horrela, gizartean ageri diren kulturen molde eta adierazpen ugari ezagutuko dituzte haurrek, eta onarpen, errespetu eta balioespeneko jarrerak landuko dituzte kultura horiekiko.

*Hau da, “nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren” eremuari esker hezkuntza sexualaren ardatz batzuk lantzen dira: «ni» nozioa eta bere buruaren gaineko irudia eratzeari, gorputza osotasunean ezagutzeari, haurren jakin-min eta interes handia pizten dute natura gaiak lantzeari eta jokabide-ildo egoki eta osasungarriak eskuratzeari. Bizikidetzak sustatzeari, sexu eta generoko nortasuna eraikitzen ari direla onartzeari eta begirunea eskaintzeari, bi sexuak bereizi ezean, gizarteak egindako hautuak barneratzeari (gizon edo emakume izatearen ondorio ezinbesteko direlakoan), eta sexualitatea bizitzeko aukera emateari eta bizipen horren haria nork bere burua deskubritzea. Jakin-mina, topaketa eta gozamina izateari, kalitatezko lotura afektiboak ezartzeari, errespetu eta balioespeneko jarrerak izateari, izakien artean ematen diren harremanei garrantzia eskaintzeari... garrantzia emanaz. Hona hemen hezkuntza sexualaren alderdi horiek lantzen dituzten etapako helburuak, eta ebaluazio-eduki eta -adierazleak “nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren” eremua kontuan hartuz:*

### **Etapako helburuak:**

- 1) Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeko.
- 3) Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.

5) Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrianetara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.

6) Ingurune fisiko eta soziala behatu eta aztertzea eta hura ezagutzeko interesa adieraztea, haren partaide izateko sena lantzeko eta ingurune horretan nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz jarduteko.

10) Hurbilean zer gizarte talde dituen jakitea eta haiengana, haien kultura-ekoizpenetara, balioetara eta bizimoduetara jarrera irekiz gerturatzea, konfiantza, errespetu eta balioespeneko jarrerak lantzeko.

11) Arian-arian, gizartean jokatzeko oinarritzko jarraibideak barneratzea eta norberaren portaera jarraibide horietara moldatzea, gero eta modu egoki eta orekatuagoan.

### **Eduki komunak:**

- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Elkarlana eta lankidetzaren taldean ikasteko zereginetan.
- Giza eskubideak eta gizarte-arauak betetzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Gorputza eta emozioak autoerregulatzea.

### **Lehen zikloko edukiak:**

- Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta, arian-arian, zer sententzio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Norberaren eta gainerako pertsonen gorputzak osotasunean eta atalez atal dituen ezaugarri eta ahalmenetako batzuk ikertzea eta, arian-arian, haiek identifikatzea eta ezagutzea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Arian-arian, norberaren gorputza eta nortasuna eraikitzea eta onartzea. *Nortasuna eraikitzea.*

- Norberaren eta gainerako pertsonen sentimenduak, emozioak, oinarrizko beharrianak eta interesak adieraztea, identifikatzea eta erregulatu hastea. Laguntza onartzea eta, arian-arian, hura bilatzea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Norberaren segurtasun afektiboa ziurtatzeko estrategiak erabiltzea (erreferentziazko pertsona helduaren begirada bilatzea, kontaktu afektiboa eskatzea, etab.). *Nortasuna eraikitzea.*
- Konfiantza izatea zereginak laguntzarekin betetzeko eta eguneroko bizitzako zailtasunak gainditzeko ahalmenean (zenbaitetan laguntza-premia izan arren). Arrisku-egoera batzuk hautematen eta saihesten hastea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Lotura afektiboak bilatu eta ezartzea adineko pertsonekin eta eskolako hurrekin. Enpatia-jarrerak izaten hastea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*

**Bigarren zikloko edukiak:**

- Norberaren gorputza arakatzeko eta ezagutzeko. Norberak zer ezaugarri eta bereizgarri dituen jakitea eta gainerako pertsonetikiko diferentziak eta antzekotasunak identifikatzea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta zer sententzio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzeko. *Nortasuna eraikitzea.*
- Gorputzaren egituraren gero eta irudi doituago bat izatea eta adieraztea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Gorputzak oinarrizko zer beharrian dituen jakitea eta haiek adieraztea, erregulatu eta kontrolatu. Konfiantza izatea norberak beharrian horiek asetzeko duen ahalmenean. *Nortasuna eraikitzea.*
- Norberaren ezaugarriak, ahalmenak eta mugak balioetsi eta, arian-arian, onartzea. *Nortasuna eraikitzea.*
- Garbitasuneko, elikadurako eta atsedeneko ohitura osasungarriak ezagutzeko, balioesteko eta horiek gero eta autonomia handiagoz betetzea. Behar bezala erabiltzea ohiturazko jardura horiei dagozkien espazioak eta objektuak. *Nortasuna eraikitzea.*



- Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan. *Nortasuna eraikitzea.*
- Jolasaren bidez (jolas motor, zentzumenezko, sinboliko eta arautuen bidez) arakatzea ingurunea. Disfrutatzeke eta harremanak izateko bitarteko gisa balioestea jolasa. *Nortasuna eraikitzea.*
- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*
- Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*
- Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak eztabaidatzea, hausnartzea, balioestea eta betetzea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*
- Haurrak parte hartzen duen gizarte taldeetan ezartzen diren harreman afektiboen garrantzia balioestea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*
- Gogoz bereganatzea, arian-arian, elkarbizitzaren oinarritzko arauak. Gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzen hastea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*
- Hurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean. Estereotipo eta aurreiritzi sexista batzuk identifikatzea eta baztertzea. *Hartu-emanak gizarte-ingurunean.*
- Izaki bizidunen portaera, funtzio, ezaugarri eta aldaketa batzuk ezagutzea. Jaiotzaren eta heriotzaren bitarteko bizi-ziklora hurbiltzea. Izaki bizidunen gaineko aieru edo konjeturak egitea. *Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin.*
- Naturaren eta izaki bizidunen gaineko jakin-mina, interesa eta errespetua izatea. Pertsonen zaintzaren gainean duten arduraz jabetzea eta jarrera kritikoa izatea ingurunean egiten diren jarduera kaltegarriekiko. *Hartu-emanak ingurune fisiko eta naturalarekin.*

**Ebaluazio-irizpideak eta –adierazleak:**

- Arian-arian, bere eta gainerako pertsonen gorputzaren atalak ezagutzen, izendatzen eta kokatzen ditu. *Gorputzaren egituraren gero eta irudi doituago bat adieraztea eta bere sentrazio eta pertzepzioez jabetzea.*
- Pertsonen arteko diferentziak eta antzekotasunak ezagutzen eta azaltzen ditu, gorputzaren ezaugarri eta bereizgarri batzuei erreparatuta. *Gorputzaren egituraren gero eta irudi doituago bat adieraztea eta bere sentrazio eta pertzepzioez jabetzea*
- Giza irudia irudikatzen du eta gizakien ezaugarri fisiko batzuk ikusten dira irudi horietan. *Gorputzaren egituraren gero eta irudi doituago bat adieraztea eta bere sentrazio eta pertzepzioez jabetzea*
- Sentikorra da gainerako pertsonen aldartearekin, interesekin eta gogoarekin. *Jolasetan parte hartzea, eta, parte-hartze horretan, gero eta gehiago erregulatzea sentimenduen eta emozioen adierazpena.*
- Arian-arian, sumisio eta nagusikeriazko jarrerak baztertzen ditu. *Jolasetan parte hartzea, eta, parte-hartze horretan, gero eta gehiago erregulatzea sentimenduen eta emozioen adierazpena.*
- Elkarbizitzarako arau batzuk ezartzea beharrezkoa dela jakitea. *Gizarte-ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziazko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta.*

**2.– Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.****2.1.– Eremuaren ezaugarriak**

Pertsonaren eta ingurunearen arteko komunikazioa eta interakzioak lantzea da eremu honen xedea. Norberaren baitako eta kanpoko munduaren arteko lotura egiten dute hizkuntzek; izan ere, haien bidez, errealitatea adierazten dugu, portaerak erregulatzen ditugu, hartu-emanak izaten ditugu eta, besteak beste, pentsamenduak, sentimenduak eta bizipenak adierazten ditugu.

Haur Hezkuntzako etapan, handitu eta dibertsifikatu egiten dira haurren esperientziak eta ugaritu egiten dira haurren komunikazio eta adierazpen moduak. Haurrek, hasiera

batean, gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazio moduak baliatzen dituzte kontaktuko, afektuko eta orientazioko beharrian oinarritzeko; ondoren, hizkuntza guztiak, eta bereziki ahozko hizkuntza, lantzen dituzte pertsona helduekin izaten dituzten harremanetan.

Etaparen horretan, handitu eta sakondu egiten da ingurunearekin duten harremana, adierazpide berriak eskuratzen dituzte, komunikazio-trukeak indartzen dituzte beraien adineko kideekin eta pertsona helduekin, eta, arian-arian, eduki landuagoak erabiltzen dituzte komunikazioetan; era berean, zenbait kontzeptu, trebetasun eta jarrera eskuratzen dituzte, gero eta adierazpen konplexuagoak egiteko.

Komunikazio-trebetasunak eskuratzeko, indartu egin behar dira mezuak hartu eta interpretatzeko ahalmenak eta haiek sortu edo igortzekoak. Ahalmen horiek landuta, mundua ulertzeko urratsak ematen dituzte haurrek eta berezkotasunez, irudimenez, sormenez eta funtzionaltasunez adierazten dituzte beraien sentimenduak, beharrianak, emozioak eta ideiak.

Honako hizkuntza hauek baliatzen dira eremuan: hitzezkoa, idatzizkoa, artistikoa, gorputzarena, matematika-hizkuntza, musika-hizkuntza, ikus-entzunezkoa eta ikaskuntzaren eta ezagutzaren teknologiena. Adierazpen modu horiek lantzeko prozesuan, esanahiak negoziatzen direnean, gizartean hitzarturik dauden kodeak bereganatzeko urratsak emango dituzte haurrek, haien alderdi adierazkor eta funtzionalean.

Haurren eskolak komunikaziorako esparru bat izan behar du, topaleku bat, eta esparru horrek adiera aberatseko hizkuntza-eredu bat eskaini behar die haurrei, argia eta ongi egituratua. Eredu horrek, batik bat, komunikazio-aukera askotarikoak eman behar dizkie haurrei, bai hezitzaileekin komunikatzeko, bai ikasgelako kideekin komunikatzeko, haien hipotesiak probatu eta kontrasta ditzaten.

*Haurrek haien sexualitatea adierazteko, harremanak eta esperientziak izateko, kontaktuko, afektuko eta orientazioko beharrianak asetzeko, ahozko hizkuntzaren bidez haien harreman zirkulua handitzeko, ingurunearekin harremanak izateko, sentimenduak, beharrianak, emozioak, ideiak eta haien izateko modua adierazteko, besteak beste, eremu honen beharra izango dute. Horregatik, hezkuntza sexuala*

*lantzekoa eremu hau bermatzea beharrezkoa izango da; honi esker artea, hizkuntzaren bidez... sexualitatea adierazteko. Hori lortzeko Heziberri Curriculumak zenbait helburu, eduki eta ebaluazio-irizpide eta –adierazle proposatzen ditu. Hona hemen hezkuntza sexualarekin bat egiten dutenak:*

**Etapako edukiak:**

- 1) Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
- 2) Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrizanak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.
- 3) Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.

**Eduki komunak:**

- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Elkarlana eta lankidetzaren taldean ikasteko zereginetan.
- Giza eskubideak eta gizarte-arauak betetzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Gorputza eta emozioak autoerregulatzeko.

**Lehen-zikloko edukiak:**

- Ahozko hizkuntza ulertu eta adierazteko urratsak ematea arian-arian, beharrizanak eta emozioak komunikatzeko, izandako bizipenak gogoratzeko eta norberaren portaera erregulatzeko. *Hitzezko komunikazioa.*
- Ahotsaren, norberaren gorputzaren, eguneroko bizitzako objektuen eta musika-tresnen aukerak arakatzea. *Arte-komunikazioko beste modu batzuk.*

### **Bigarren zikloko helburuak:**

- Bi neska musuak ematen daude maite direlako.

#### **3M 06/29**

- Neska eta mutil bat musuak ematen daude nobioak direlako. Ondo iruditzen zaio.

- Bi mutil besarkatzen daude lagunak direlako. Seguru lagunak direla. Bere aita bere amaren nobioa da.

- Bi neska besarkatzen daude bikoteak direlako seguru. Ondo iruditzen zaio.

### **3M 07/01**

- Aita eta ama bat musu bat ematen daude nobioak direlako.

- Beste musu bat ematen daude (bi mutilak agertzen diren argazkian) nobioak direlako eta musua eman nahi dutelako.

- Bi neska musu ematen daude bere nobioa delako.

### **3M 08/30**

- Neska eta mutil bat musua ematen daude neska eta mutila badoazelako.

- Bi mutil musu bat ematen daude badoalako bere etxera.

- Bi neska musu bat ematen daude badoalako bere etxera.

### **3M 08/31**

- Neska edo mutilak musu ematen dio.

- Bi aita musu ematen daude asko maite duelako. Ondo iruditzen zaio.

- Bi amatsu musuak ematen daude asko maite duelako. Txarto iruditzen zaiola esan du irribarre pikaroarekin.

### **3N 10/01**

- Ama eta aita bat musu ematen daude eta ez daki zergatik.

### **3M 10/26**

- Neska eta mutil bat musuak ematen daude nagusiak direlako.

- Bi mutil musuak ematen daude handiak direlako. Ondo iruditzen zaio.

- Bi neska musuak ematen daude handiak direlako. Ondo iruditzen zaio.

**3N 12/08**

- Neska eta mutil bat musu ematen daude maite direlako.
- Bi mutil musu ematen daude, mutilak direlako. Ez dira bikoteak, batek txapela daukalako eta besteak ez. Mutilak ezin dira izan bikoteak batek bizarra daukalako eta besteak ez.
- Bi neska musu ematen daude neskak direlako eta kamiseta urdinxka duenak bestearen laguna delako. Ez dira bikoteak.

## **20. eranskina. Hezkuntza sexualaren beharra justifikatzen duten datuak.**

Lehenengo hipotesian ikusi den moduan (H1), haur guztiek erakutsi duten sexu identitatea jaio diren sexuarekin bat egiten du; hots, biologiarekin bat egiten du. Baina haurren identitate sexuala biologikoki ezarrita dagoenarekin kointziditzeak ez du esan nahi adin honetan biologikoki ezarrita dagoena eta haurrak duen identitate sexuala kointziditzen ez duen kasurik ez denik ematen. Irakasleek egindako elkarrizketetan adibidez, irakasle batek eskolan, Haur Hezkuntzan, generoarekin bat egiten ez duten haurren bi kasu izan dituela azaldu du. Beraz, generoarekin bat egiten ez duten haurren kasuak eman daitezke, nahiz eta hartutako laginean ez diren eman, eta horietan hezkuntza sexuala beharrezkoa izango da (López, 2005).

H1 hipotesian haurrei neska edo mutil zergatik diren galdetu zaie eta azalpenak ematerakoan erantzun batzuetan estereotipo sexistak agertu dira eta horiei aurre egiteko hezkuntza sexuala premiazkoa da. Adibidez mutil batek aita bezala zakila daukalako eta bere ama eta bere arreba bezala gimnasia erritmikoa egiten ez duelako mutila dela azaldu du.

Era berean, hezkuntza sexuala sexualitatearen aurrean naturaltasuna indartzeko beharrezkoa ere bada. Izan ere, haur batzuk zergatik diren mutil edo neska azaltzeko lotsa eta urduritasuna erakutsi dute eta beren genitalak aipatzeko ezintasuna izan dute. Gainera, neska edo mutil zergatik diren galdetu zaien haurretatik 3 mutil pitilina daukatelako edo pitilina begiratu dute, mutilak zergatik direla azaltzeko. Aldiz, neska bakar batek baino ez du alua begiratu galdetua izan denean. Mutilek (Willian et al., 1987) haien sexua bisibleagoa dutelako izan daiteke. Beraz, hezkuntza sexuala beharrezkoa da aluari zakilak duen besteko ikusgaitasuna eskaintzeko.

H2 hipotesia frogatzeko haurrei bere “kontrako” sexuaz mozarrotzeko eskatu zaie. Ikusi den moduan, elkarrizketatutako haurretatik % 6,6 sexuaren iraunkortasuna erakutsi du (4 urteko neska bat eta 5 urteko mutil bat). Sexu iraunkorra duen 4 urteko neska horrek H12 frogatzeko erabili den galdetegian, bere urteko neska guztietatik instrumentalena<sup>14</sup> dela ikusi da eta sexuaren iraunkortasuna agertu duen duen 3 urteko mutil bakarrak, H12 frogatzeko erabili den galdetegian ikusten den moduan, bere urteko mutil

---

<sup>14</sup> Tendentzia autoasertiboak moduan kontsideratu daiteke: konpetibitatea, arriskuarekiko predispozizioa, inizatibarako gaitasuna... (Gómez-Zapiain, 2013).

guztietatik mutilik espresiboena<sup>15</sup> da. Beraz, haur hauek bere iraunkortasun sexuala bereganatu izana kanpoko faktore batzuk sustatu dutelako izan daiteke. Baliteke, adibidez, gurasoek, haien jarrerak “zuzendu nahiak” zein sexuak diren gehiegi azpimarratu izana. Adibidez atzazalak margotzea oso gustoko duen mutil bati bere gurasoek nahiz eta atzazalak margotu, mutila dela behin eta berriz azpimarratzea. Baliteke ere, hurrek beraiek gainerako pertsoneri asko justifikatu behar izatea zein sexuak diren. Adibidez, futbolera jolasten duen neska askotan errepikatu behar izatea bere berdinkidei nahiz eta futbolera jolastu neska dela... Arrazoi bat edo beste izan, hezkuntza sexualaren beharra ezinbestekoa izango da debeku, diskriminazio... horiei aurre egiteko. Ildo beretik, H2 hipotesia frogatzeko erabili den galdetegian haur gehienak lasaitasunez, haserre ala lotsati jardun dute, bere “kontrako” sexuaz mozturatu behar izan dutenean. Mutil gehiagok lasaitasunez jardun dute, % 66,66. Gainerako mutilak, % 33,33k, haserretu egin dira. Aitzitik, mutilekin alderatuz, neska gehiagok lotsati jardun dute, % 20k. Orokorrean, hurrek lasaitasunez jardun dute, % 60; dena den, hezkuntza sexualaren beharra ikusten da lotsa eta haserre egoeretan (% 30). Ildo beretik, hezkuntza sexualaren beharra nabaria izan da haur batzuk beste sexua gutxietsi dutenean; adibidez, neska batek mutil izatea gustatuko ez litzaiokeela esan du, mutilek txarto marrazten dutelako.

H3 hipotesian haurrak identitate sexuala deskribatzeko genero estereotipoetan oinarritzen direla ondorioztatu da. Hori ikusita, hezkuntza sexuala beharrezkoa dela egiaztatu daiteke. Berdin gertatu da H4 frogatzeko erabili den galderan, haurrak jokabide autoerotikoak duten edo ez ikertu denean. Hori ikertzean guraso batzuk hurrei haien genitalak ez ukitzeko beldurra sortu (gaixotuko direla), debekua erabili (hori ez dela egiten esaten dietenean), ideia negatiboak transmititu dizkiete (adibidez; usain txarra daukala aluak, ez izan zikoitza...) edo inposizioaren bidez haurren jarrerak erregulatzen dituztela ikusi da. Eskolan hezkuntza sexuala beharrezkoa da eskolak hezkuntza sexualaren bidez gurasoekin elkarrekintzan aritu behar duelako, haurren sexualitatea positiboa izan dadin.

Hurrek sexualitatearen inguruan interesak dituztela baieztatu da H5 hipotesia frogatzeko egin den galderan, baina hurrek informazio gutxi, nahasia eta “tabu” moduan

---

<sup>15</sup> Tendentzia integratzailea moduan kontsideratu daiteke: kontaktua, afektibitatea, zaintza, samurtasuna... (Gómez-Zapiain, 2013).

bereganatzen dutela ikusi da. Hortaz, hezkuntza sexualaren beharra dago. Izan ere, haurrek ugalketaren inguruan zenbait ezagutza eta interes daukate. Eskolatik interes eta obserbazioetan ikusi diren zalantzak ebazten lagundu behar zaie hurrei, hezkuntza sexualari esker. Izan ere, haurrek interesa erakusten dutenean eta galdetzeko gai direnean erantzuna bereganatzeko prest egongo dira (Villamarzo, 1982). Era berean, hezkuntza sexualaren beharra ikusten da haur batzuk haurrak nola egiten diren *metaforen* bidez azaltzen dutelako, espermatozoideari hazia deituz adibidez, baina ez dute prozesua ulertzen. Eskolatik irakaslek informazio objektiboa maila biologiko, psikiko eta sozialean eskaini beharko diete hurrei ugalketaren inguruan eman beharreko azalpenak eskainiz (Maio eta Alcaide, 2010). Hori egiteko, hezkuntza sexuala erabiltzea beharrezkoa da eta beraz honetan ere Haur Hezkuntzan hezkuntza horren beharra sumatzen da. Aipatzekoa da ere, haurrek haurrak nondik datozen, nondik irteten diren eta nola egiten diren galderei erantzuteko hainbat teoria esan dituztela. Nahiz eta familia eta adin berekoak izan (6M 03/08 eta 6M 03/08) informazio desberdina eta teoria desberdinak azaldu dituzte. Horregatik, eskolatik garrantzitsua da hezkuntza sexualaren bidez teoria horiek egiaztatzeko informazioa eta baliabideak eskaintzea. Hori dela eta, hor ere hezkuntza sexualaren beharra ikusten da.

H6 frogatzeko erabili den galderan haurrek harremanen inguruan estereotipo heterosexistak barneratuak dituzte (“*Yo que tú no me besaría con otras chicas ni con o o otros*”). Estereotipo horien aurka egiteko, hezkuntza sexualaren beharra ere nabaria da.

H12 hipotesia frogatzeko hurrei zenbait jostailu estereotipatu gustatzen zaien galdetu zaie. Emaitzetan ikusi ahal izan da mutili “nesken gauzak”, era okerrean izendatzen den moduan, neskei “mutilen gauzak” baino gutxiago gustatzen zaie. Hortaz, jostailuak, jolasak... neskenak eta mutilenak ez direla indartu behar da hezkuntza sexualarekin. Izan ere, haurrek nahi duten gauzekin jolasteko eragozpen bat da. Hortaz, hezkuntza sexualaren beharra nabari da. Berebat, haur gehiengoan gustuak estereotipo sexistetan oinarrituta daudela ikusi da aipatutako froga horretan. Beraz, honetan ere hezkuntza sexualak bere ardura dauka eta bere beharra sumatu egiten da. Halaber, haurrak diren modukoak onartzeko zailtasunak izaten dituzte guraso batzuk. Adibidez haur batek atzazalak margotzea gustatzen zaio baina bere amak ez dio atzazalak margotzen uzten; horregatik, eskolatik hezkuntza sexualaren bidez eskola eta familiaren arteko

elkarrekintzan egotea garrantzitsua da. H12 frogatzeko “galdetegian” (galdetegia elkarriketa bera izan da, hipotesia frogatzeko galdera bat erabili da) ere haur batzuk sozialki beren “kontrako” sexuarentzako ezarrira dauden jostailuak, gustuak, interesak, jolasak... ez dituztela esan dute, bere sexuak ez direla justifikatuz. Argi dago, adinagatik haurrak bere sexuarekin identifikatzen hasi direla eta agian, bere sexua azpimarratzen duten gauzak egiten eta erabiltzen dituztela, baina gizarteak ezartzen dituen estereotipo eta rolak haurren jarduteko moduetan, jolasetan, gustuetan... nabariak dira, gizartearen eragina handia delako. Beraz, haurrek berdintasunean oinarritutako ereduak edukitzeko, hezkuntza sexualaren beharra nabaria ere bada. Dena den, jostailu eta jolas denak neskenak eta mutilenak direla esaten duten haurrak ere badaude, eta baita estereotipoen aurka egiten dutenak ere. Adibidez, atzazalak margotzen dituzten mutilak.

Elkarrizketatuak izan diren irakasleek Haur Hezkuntzan hezkuntza sexuala beharrezkoa dela uste izan dute. Halaber, H12 hipotesian, eskolak honako erronkei aurre egin behar diola azaldu da: dibertsitate sexualari, emakumeekiko diskriminazioari, eta familia aniztasunari. Erronka horiei aurre egiteko hezkuntza sexuala premiazkoa da, horregatik bere beharra ere kasu honetan sumatzen da.



**21. eranskina. Irakasleek zenbait kontzeptu sexualei emandako deskribapena.**

Hona hemen irakasleek egindako elkarrizketetan sexualitatea, maitasuna, homosexualitatea, bisexualitatea, transexualitatea eta plazera kontzeptuei eman dizkioten defenizioak:

<b>Sexualitatea Arentzat</b>	<b>Sexualitatea Brentzat</b>	<b>Sexualitatea Drentzat</b>
<p>“Gorputzan dekozun tendentzia ez? Edo ez dakit, oso argi daukat sexualitatea ez dala koitoba bakarrik, direla gauza gehiago. Baña zelan difinitu? Identifikatzen zaren gauza bategaz e baña orokortasun baten barruen. Ez? Ez dakit zelan esan. Orientazioa izan leike, norantza joan nahi duzuz. Baña doala <i>pack</i> bat moduan ez doa hala bakarrik koito sexualagaz, koitoagaz... doa gauza gehiagogaz, desioa, ilusioa, identifikazioagaz...”.</p>	<p>“Oso galdera zaila da. Ba pertsonak jaiotzen garenetik daramagun ezaugarri bat”.</p>	<p>“Nik uste dut plazerra ematen duen zerbait esango nuke”.</p>

<b>Maitasuna Arentzat</b>	<b>Maitasuna Brentzat</b>	<b>Maitasuna Drentzat</b>
<p>“<i>Es que</i> maitasun mota asko dauz, maitasun desberdiñak dauz, bikotearekiko,</p>	<p>“Ondo egotea beste batekin, beste pertsona batekin edo beste pertsona batzuekin”.</p>	<p>“Sentimendu bat, barnebarnean daukazuna, konturatu gabe sortzen doana apurka-apurka”.</p>

haurrekiko...”.		
-----------------	--	--

<b>Homosexualitatea Arentzat</b>	<b>Homosexualitatea Brentzat</b>	<b>Homosexualitatea Drentzat</b>
<p>“Pertsona batzuen identifikaziñoa beste sexuagaz. Bai uste dut askotan, homosexualitatea edo eraman dala estremoetara, trabesti moduan... Baña niretzako okerra da homosexualitatea da identifikatzen zarela edo nahi duzu harremanak izan zure sexodun pertsonekin”.</p>	<p>“Ba oso zaila da esatea baña uste dut homosexualak daukatela erantzun egokiagoa, ez? Niretzat daukadan adinagatik da homosexualitatea gauza bat orain edo beranduago ikasi dudana zer den eta uste dut, ba hori da, maitasuna sexu berdineko pertsonen artean. Baiña ez dakit haien sentimenduak... Izango dira gureak moduak, baña haiek azaldu beharko dute zer den homosexualitatea, ikuspuntu falta bat daukagu”.</p>	<p>“Nik ba ez dakit ez dut bizi izan, baina printzipioz neska neskekin sexu harremanak izatea eta mutillek mutillekin. Onartzen duela argitu du”.</p>

<b>Bisexualitatea Arentzat</b>	<b>Bisexualitatea Brentzat</b>	<b>Bisexualitatea Drentzat</b>
<p>“Bazara neska moduen ba gustora zaudela neskekin eta baña be mutillekin egon ahal zarela”. Berak uste du bisexualitatea eman ahal dela, bisexualitaeta posiblea dela”.</p>	<p>“Ba ez dakit maitasuna besterik barik”.</p>	<p>“Batzutan oso harreman sexualak izan ditzakezula bai neska zein mutillekin”.</p>

<b>Transexualitatea Arentzat</b>	<b>Transexualitatea Brentzat</b>	<b>Transexualitatea Drentzat</b>
<p>“Nik uste dut hoiek direla ya behar dutenak organoak eta denak, operasiño bat behar dutela transformatzeko eta beraiek ez direla sentitzen identifikatuta hoiek operasiñoak hoiek bideak egin barik”.</p>	<p>“Ez dakit oso zaila egiten da transexualitateari buruz hitz egitea, sexu bat izan beste bat sentidu... Ez dakit, dira gauza errespetagarriak ulertzen ditudanak, baña haien sentimenduak ez ditudala ondo ezagutzen”.</p>	<p>“Uste dut dala behin operatuta. Pertsona bat sexu edo itxura edo ormonak, sexu bat daukala eta beste kontrakoa sentitzen duela bere buruan eta orduan ba edo operazioak edo horrelako gauzak egiten dituela beste sexua izateko”.</p>

<b>Plazera Arentzat</b>	<b>Plazera Brentzat</b>	<b>Plazera Drentzat</b>
<p>“<i>Jo!</i> Gauza asko izan ahal dire eta ez deko zertan izan behar bakarrik sexualak. Begirada bat, lastantxo batzuk, gustura egon sin mas...”</p>	<p>“Gustora sentitzea eta ondo egotea”.</p>	<p>“Ondo egote bat. Lehenengo pentsaera egiten duzu, gozotasunaren egoteko gogoaz eta gero fisikoki eszitazio bat, oso gustura egotea”.</p>

**22. eranskina. Irakasleek hezkuntza sexualaren behararen inguruan emandako erantzunak.**

Irakasleei egindako elkarrizketetan irakasleek hezkuntza sexuala zer den definitu ostean, Haur Hezkuntzan hezkuntza sexuala beharrezko den edo ez erantzun dute.

<b>Hezkuntzan hezkuntza sexuala beharrezkoa da? (A rentzat)</b>	<b>Hezkuntzan hezkuntza sexuala beharrezkoa da? (B rentzat)</b>	<b>Hezkuntzan hezkuntza sexuala beharrezkoa da? (D rentzat)</b>
<p>“Bai, zergaitik ez? Ez dakit nola baña agien bai. Ez dakit, suertatu jakuz gauzak. Nik gauza asko ez dakit atera diren, hartzen doguz ontzat moduan; laztanak, medikuen jolasak... onartu egiten ditugu, besteak gure badau. Uste dut zabalak garela. Beti gauza berriak badauz, ba ondo dauz egitea. Formakuntza, gero nola plasmatu gelan? Ba ikusiko gendun”.</p>	<p>“Bai. Ze oso txikitatik eta umeak azkenean, definiturik gabe daude eta askotan, estereotipo gehiegi daudenez, ba gu saiatzen gara hoiek, estereotipo hoiek kentzen eta nik uste dut hori egiten badugu hezkuntza sexuala egiten ari garela”.</p>	<p>“Nik ez dut izan nik ez dut ondo eman” esaten du (nahiz eskolako irakasleen artean, ikastaro gehien egin dituen irakaslea den). Berak suposatzen du izan beharko leikela. “Arlo hori inportantea da, beste arlo batzutean hezitzen dogun moduan. Baña gabezia daukat”.</p>

### **23. eranskina. Irakasleek hezkuntza sexuala eskaintzeko izaten dituzten zailtasunak.**

Irakasleei egindako elkarrizketan irakasleek hezkuntza sexuala eskaintzeko zenbait zailtasunekin topo egiten dutela azaldu dute.

Adibidez, hezkuntza sexuala beti lotzen dela identitatearekin, eta esku-hartzeko edo lantzeko “*pauta*” falta ikusten dute “*Txiki munduen ez digute inoiz pautarik emoten, beti lotzen da identidadeagaz. Beti lotzen da identidadeagaz eta oso justito. Ez dakit egiten dugun hezkuntza sexuala.*”

Formakuntza falta ikusten dute nahiz eta ikastaroren bat egin duten “*Baña hala eta guztiz ez naz sentitzen guztiz formatuta*” eta % 66,66k ez dituzte haien lankideak formatuta ikusten.

Zenbait esku-hartzeko egiteko ere zailtasunak ikusten dituzte; adibidez, abusu sexualak jasaten ari den haur bat detektatzeko ez dute haien burua argi edo gai ikusten. Gainera, esku-hartzeko estrategia falta sumatzen dute.

Eskolan generoarekin bat egiten ez duten haurren kasuak bideratzeko protokolorik edo proiekturik ez daukate nahiz eta eskolan kasuak egon diren. Ildo beretik, Curriculumean hezkuntza sexualaren inguruan zehaztasun gehiago falta direla uste dute.

Gizartean dauden esterotipoek ere gauzak zaildu egiten dituzte “*Baña dekogu hain sartuta gizartean...*”

Eskolan haur asko eta ume desberdinak daudenez, zaila egiten da ere haur guztien interes sexualak asetzea. Asetzen saiatzen dira, baina guztienak asetzea zail ikusten dute.

**24. eranskina. Irakasleek izan duten jarrera.**

Irakasleek zein jarrera duten ikusteko irakasleei Félix Lópezek eta Antonio Fuertesek (1993) “Para comprender la sexualidad” liburuan proposatzen dituzten jarreraren inguruan ados ala desados dauden galdetu zaie eta bere adostasuna edo desadostasuna argudiatzeko eskatu zaie. Irakasle guztiak portura liberal irekia erakutsi dute galdetegi honetan:

Sexualitatea eta hezkuntza sexualarekiko jarrera	Ados	Desados
Sexualitatea etengabe kontrolatu behar den instintu (sen) arriskutsua da. <i>(Actitud de tabutación)</i>		✓
Sexualitatea gai delikatua da eta gutxi dakit horren inguruan; beraz, hezkuntza sexuala profesionalen esku (medikuntza, adibidez) uztea egoki ikusten dut, ondo eta gaizki dagoena erakusteko. <i>(Actitud de dependencia)</i>		✓
Ez nago ados aurreko bi jarrerekin. Hezkuntza sexuala ez dago zertan landu behar, sexualitatea hain naturala da non ez dago zertan horren inguruan hitz egin beharrik. <i>(Falso naturalismo)</i>		✓
Sexualitatea giza dimentsio bat dela onartzen dut, harreman afektibo egonkorren (konpromiso serioen) barruan zentzua dutena. Sexualitatea honela bizitzen ez dutenek ere toleratzen ditut. <i>(Actitud conservadora integrada)</i>		✓
Haurrak eta bere nahiak morala eta jokabide sexualak erregulatu behar dituzte. 4 urteko haurrak beste ikasle batzuen aurrean zakila edo alua ukitzen badu (korroan adibidez) hobe da bere desira sexualak asetzen uztea. <i>(Actitud liberal individualista)</i>		✓
Hezkuntza sexuala ezkontzarako hezkuntza moduan ulertu behar da, eta prokreazioari, haurren zaintzari, familiari... lotuta egon		✓

behar du. <i>(Actitud conserbadora)</i>		
Haur ipuin batean amak bakarrik sukaldeko lanak egiten agertzen bada, hobe da orrialde hori ez erakustea. Hezkuntza sexualak erreboluzioa ekarri behar du. <i>(Actitud liberal impositiva)</i>		✓
Sexualitatea bizitzeko hainbat modu daude eta gizakien berezko dimentsioa natural eta positiboa da, hainbat posibilitate eskaintzen dituenak gizakiei: plazerezko harremanak izatea, ugaltzea, afektua ematea... Gainera, hezkuntza sexuala gizakien eskubide bat izan behar du. <i>(Actitud liberal abiarta)</i>	✓	
Sexualitatearen posibilitate bakarra ez da prokreazioa, eta hezkuntza sexuala beharrezkoa da gai honen inguruan ezjakintasuna gainditzeko eta askeagoak izaten laguntzeko. <i>(Actitud liberal)</i>	✓	

Ahatik, elkarrizketa egin ahala B irakasleak masturbazio baten aurrean egiten duen esku-hartzea azaldu duenean, naturalismo faltsua erakutsi du. Naturalismo faltsuan subjektuak postura liberalak hartzen duela dirudi, baina sexualitatea naturaltasunez tratatzeko zailtasunak eta beldurrak ditu. Irakasle honek masturbazioa ez du naturaltasunez ikusten: “*Begirutzen geratzea askotan ateratzen zait*”. Ez ditu tabutazio edo dependentzia posizioak hartzen, eta jarrera desegokiak direla arrazoitzen du, baina ez du beldurra oraindik gainditu, eta adibidez, isiltasunarekin erantzuten du “*segun zer egiten gauden hitz egiten dut berarekin ala usten diot bakean, ez ikusiarena egiten dut*” edo sexualitatearen gaiari garrantzia kentzen dio horretaz ez hitz egiteko (López et al., 1999). Hortaz, elkarrizketan jarrera kontserbatzailea erakutsi du zenbait momentutan. Aitzitik, aipatu bezala, A eta D irakasleek elkarrizketa osoan jarrera liberal irekia erakutsi dute. Sexualitatea gizakiaren errealitate bat dela uste izan dute, gizakiari posibilitate anitzak eskaintzen diona; ugalketa, plazera, sentimenduak, laztanak... Ugalketa aukeraketa librea izan behar dela uste izan dute eta plazera nahi denean lortu daiteke uste izan dute, inposaketa batean oinarritzen ez bada (Felix, et al., 1993).

Etsenpluz, irakasle batek sexualitatea zer den azaldu duenean sexualitatea honako hau dela esan du: *“Oso argi daukat sexualitatea ez dala koitoa bakarrik, direla gauza gehiago. Baña zelan difinitu? Identifikatzen zaren gauza bategaz e baña orokortasun baten barruen. Ez? Ez dakit zelan esan. Orientazioa izan leike, norantza joan nahi duzuz. Baña doala pack bat moduan ez doa hala bakarrik koito sexualagaz, koitoagaz... doa gauza gehiagogaz, desioa, ilusiñoa, identifikaziñoagaz...”*.



**25. eranskina. Irakasleen formakuntza hezkuntza sexualaren inguruan.**

Irakasleen formakuntza zein den ikusteko Manuel Area Moreira eta Raul Díaz Acosta “Sexpresan, multimedia para la educación afectivo-sexual” 2009an argitaratutako gida didaktikoan proposatzen duten galdetegia hiru irakasleri (A, B eta Dri) egin zaie sei nibel dituen Likert eskalako inkesta erabiliz.

<b>A irakaslea</b>						
<b>Hezkuntza sexualaren inguruan</b>	<b>Oso eskasada</b>	<b>Ez da nahikoa</b>	<b>Nahikoa da</b>	<b>Ona da</b>	<b>Oso onada</b>	<b>Bikaina da</b>
<b>Nire ezagutza eta formazio maila</b>		X				
<b>Irakasleen ezagutza eta formazio maila</b>	X					

Iturria: Manuel Area Moreira eta Raul Díaz Acosta (2009)

<b>B irakaslea</b>						
<b>Hezkuntza sexualaren inguruan</b>	<b>Oso eskasada</b>	<b>Ez da nahikoa</b>	<b>Nahikoa da</b>	<b>Ona da</b>	<b>Oso onada</b>	<b>Bikaina da</b>
<b>Nire ezagutza eta formazio maila</b>			X			
<b>Irakasleen ezagutza eta formazio maila</b>			X			


Iturria: Manuel Area Moreira eta Raul Díaz Acosta (2009)

<b>D irakaslea</b>						
<b>Hezkuntza sexualaren inguruan</b>	<b>Oso eskasada</b>	<b>Ez da nahikoa</b>	<b>Nahikoa da</b>	<b>Ona da</b>	<b>Oso onada</b>	<b>Bikaina da</b>
<b>Nire ezagutza eta formazio maila</b>		X				
<b>Irakasleen ezagutza eta formazio maila</b>		X				

Iturria: Manuel Area Moreira eta Raul Díaz Acosta (2009)

Ikusten den moduan, % 66,66k hezkuntza sexualaren inguruan duen formakuntza nahikoa ez duela uste du eta % 33,33k hezkuntza sexualaren inguruan duen formakuntza nahikoa dela uste du.

Elkarrizketatutako irakasleen % 33,33k eskolan gainerako irakasleen formakuntza oso eskasa dela uste du, % 33,33k uste du nahikoa dela eta % 33,33k nahikoa ez dela uste du (ikus 16. grafikoa).



Grafikoa 16 irakasleen ezagutza eta formazio mailaren inguruan elkarrizketatutako irakasleek duten iritzia

Halaber, A irakasleak ikastaroren bat egin du guraso eta irakasle moduan “*Baña hala eta guztiz ez naz sentitzen guztiz formatuta*” eta irakasleek hezkuntza sexualaren inguruan formakuntza osagarria behar dutela uste du. Eskolak eskainitako formakuntza saioetan parte hartu du eta baita eskolaz kanpoko formakuntza saioetan ere. B irakasleak eskolak proposatutako formakuntza saioetan parte hartu du eta Ak bezala, irakasleek formakuntza osagarria behar dutela uste du. D irakasleak batzuetan eskola moduan hezkuntza sexualeko formakuntza saioetan parte hartu du eta beste batzuetan eskolaz kanpoko formakuntza saioetan apuntatu da eta ikastaroa asko egin ditu, pertsonalki beharizana ikusita. Sasoi baten eskolan ikastaro asko egin zituztela azaldu du, gabezi hori ikusten zutelako. A eta B irakasleak bezala eskolako irakasleek formakuntza osagarria behar dutela uste du, zehatzago esanda, etengabeko formakuntza behar dutela uste du.

Laburbilduz, elkarrizketatutako irakasleek hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza bereganatu dute.

Aipatzekoa da, generoarekin bat egiten ez duen haur baten kasu bat izan dutenean formakuntza bilatu dutela, beraz, formakuntza bereganatzeko ardura dute. Era berean,

formakuntza gehiago bereganatzeko prest daude “*Uste dut zabalak garela. Beti gauza berriak badauz, ba ondo dauz egitea*”. Gainera, formakuntzari garrantzia ematen diote, bereganatu duten formakuntza lagungarri ikusi dutelako zenbait kasutan.

Dena den, esku-hartzeko formakuntza gehiago behar dutela esan dute; adibidez, esku-hartzeko estrategia gehiago izateko, abusu sexualak detektatzen jakiteko...

## 26. eranskina. Eskolak aurre egin behar dituen lau erronken inguruko datuak.

Eskolak aurre egin behar dituen erronkak ikusteko ikasleei haien gustuen inguruan galdetu zaie. Azpimarratu beharra dago familia aniztasunaren erronka galdetegi honekin ezin izan dela frogatu, beraz, eskolan erronka hori ematen den edo ez den ematen ikusteko irakasleei elkarrizketa indibidualak egindako haurren familia moten inguruan galdetu zaie eta honako datu hau bildu da: haurren % 96,66 familia nuklear baten parte da (ama eta aitaz osatuta) eta % 3,33 familia gurasobakar baten parte da (ama batez osatutako familia eta haurra intseminazio artifizialez jaiota). Beraz, eskolan familia mota desberdinei aurre egin beharko zaio.

Xabier Iturbek 2015ean argitaratutako liburuan, “*Coeducar en la escuela infantil sexualidad amistad y sentimientos*”, aipatzen dituen gainerako erronkek betetzen diren edo ez ikusteko galdera irekiz egindako galdetegi hau aurrera eraman da, aipatu bezala, elkarrizketa indibidualen bidez:

- Atzazalak margotzea gustatzen zaizu? (Azazkal-laka arrosa erakutsiko zaie).
- Super-heroietara jolastea gustatzen zaizu? (Bi super-heroi erakutsiko zaie).
- Ezpainak margotzea gustatzen zaizu? (Ezpain-margo gorria erakutsiko zaie).
- Honekin jolastea edo Hulck moduko super-heroiekin jolastea gustatzen zaizu? (Hulcken panpina erakutsiko zaio).
- Futbolean jolastea gustatzen zaizu?
- Haurtxoak/Nenukoak zaintzea gustatzen zaizu? (Nenuko bat erakutsi beharrezkoa bada).
- Zein da gehien gustatzen zaizkizun kromoak? (Frozenen kromoak eta futboleko kromoak erakutsiko zaizkie).

Xabier Iturbek (2015) aipatzen duen beste erronka bat, emakumeekiko diskriminazioaren erronka, bete da ere; izan ere, askotan elkarrizketetan nesken mundua besteen zaintzara (adibidez, mutil batek karritoarekin jolastea ez zaio gustatzen, karrittoa eramatea nesken gauza delako), liraintasunera (ezpain margoa ez zaio gustatzen neskena delako)... mugatuta ikusi da, eta zenbait errepresio edo diskriminazio ikusten dira. Adibidez neska batek patioan super-heroinetera jolasten duela esan du; super-heroina horiek politikak dira. Eta batzuetan indartsuak dira, beste batzuetan ez. Beste neska batek

Super-heroiak ez ditu etxean, baina horiekin jolastea gustatzen zaio. Beste neska batek ez du inoiz futbolera jolastu. Gero zuzendu da eta egun batean jolastu zuela esan du.

Azpitarratzekoa da ere, eskolak Xabier Iturbek (2015) aipatu ez duen beste erronka bati egin behar diola aurre: mutilekiko diskriminazioa. Izan ere, mutil askok, obserbazioetan ikus daitekeen moduan, ez dira aske sentitzen gustatzen zaiena askatasunez erabiltzeko, diren modukoak izateko eta zainketarekin zerikusia duten gauzak egiteko. Adibidez, mutil bati bere gurasoek ez diote atzazalak margotzen uzten, eta berak ez daki zergatik. Berari margotzea gustatuko litzaioke. Hurrengo mutilaren kasua ere begiratu gero, mutilek izan nahi duten moduan direnean ere diskriminatuta daudela ikus daiteke: mutil honen amak azazkaletan brillante ipintzeko dauka, berari gustatzen zaio, baina amak ez dio uzten. Azazkalak margotu nahi dituen galdetu diot eta baietz esan dit. Amak azazkalak margotzea ez dio uzten, amak ez diolako ezer ere ez uzten. Azazkalak margotu dizkiot eta egun osoan egon da bere azazkalak poz-pozik begiratzen. Eskolatik joan baino lehen kendu nahi dituen galdetu diot, elkarriketan amak ez diolako uzten esan didalako, eta ezetz esan dit. Beraz, etxera azazkalekin margotuta joan da. Hurrengo egunean azazkalak guztiz garbi ekarri ditu.

Xabier Iturbek proposatzen duen azkeneko erronka dibertsitate sexuala da. Eskolak ere dibertsitate sexual handiari aurre egin behar dio; izan ere, haurrak instrumentalak<sup>16</sup> eta espresiboak<sup>17</sup> dira, bi dimentsio horiek nahastuta izaten dituzte. Dena den, badaude froga honetan guztiz espresiboak izan diren neskak eta guztiz instrumentalak izan diren mutilak. Azpitarratzekoa da ere, intstrumentalagoak diren neskak eta espresiboagoak diren mutilak agertu direla ere, sexualitatearen alorrean aldaketa ematen ari dela demostratzen dutenak.

Emaitzek erakusten duten moduan, neskei mutilei baino gehiago gustatzen zaie atzazalak margotzea, ezpain margoa, Nenukoak zaintzea eta Frozenen kromoak. Mutilei neskei baino gehiago gustatzen zaie bi super-heroiak, 3 eta 4 urteko neskek baino mutil gehiagok ezagutzen dute Hulck, mutilei neskei baino gehiago gustatzen zaie Hulckekin jolastea, futbolera jolastea eta futboleko kromoak. Gainera, ikusten da neska gehiago azken gauza horietara jolastea aukeratzen dutela mutilek azazkalakarekin, ezpain-

<sup>16</sup> Tendentzia autoasertibo moduan kontsideratu daiteke: konpetibitatea, arriskuarekiko predispozizioa, inziatibarako gaitasuna... (Gómez-Zapiain, 2013).

<sup>17</sup> Tendentzia integratzailea moduan kontsideratu daiteke: kontaktua, afektibitatea, zaintza, samurtasuna... (Gómez-Zapiain, 2013).

margoaren, Nenukoak zaintzea eta Frozenen kromoekin jolastea aukeratzen dutena baino (ikus 11. taula).

Haurrak	A <sup>18</sup>		B <sup>19</sup>		E <sup>20</sup>		H. e. <sup>21</sup>		H. j. <sup>22</sup>		F <sup>23</sup>		N <sup>24</sup>		Fr <sup>25</sup>		Fu <sup>26</sup>	
	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E	B	E
6N 01/05	X			X	X		X			X		X	X		X			
6N 01/10	X			X	X		X			X	X	X	X		X			
6M 02/14		X	X			X	X		X		X			X				X
6M 03/08 (A)		X		X		X	X		X		X			X				X
6M 03/08 (B)		X	X			X	X		X		X			X				X
6N 03/27	X			X	X		X		X			X	X		X			
6M 04/30	X		X	X		X	X		X		X			X		X		X
5N 09/18	X		X		X		X		X			X		X				X
5N 09/19	X			X	X		X			X		X	X		X			
5M 10/06		X	X			X	X		X		X			X				X
5M 01/25		X	X			X	X		X		X			X				X
5N 03/18	X		X		X		X		X			X	X		X			
4N 04/08	X			X	X		X			X		X	X					X

<sup>18</sup> Azazkalak margoteza gustatzen zaion edo ez.

<sup>19</sup> Bi super-heroekin jolastea.

<sup>20</sup> Ezpainak margotzea gustatzen zaion edo ez.

<sup>21</sup> Hulck ezagutzen duen edo ez.

<sup>22</sup> Hulckekin edo Hulck moduko super-heroiekin jolastea gustatzen zaion edo ez.

<sup>23</sup> Futbolera jolastea gustatzen zaion edo ez.

<sup>24</sup> Nenukoak zaintzea gustatzen zaion edo ez.

<sup>25</sup> Frozenen kromoak gehien gustaten zaizkion kromoak dira.


<sup>26</sup> Futboleko kromoak gehien gustaten zaizkion kromoak dira.

<b>4M 05/02</b>	X			X	X		X		X		X		X		X		X
<b>4M 08/26</b>	X		X		X	X	X		X		X		X		X		X
<b>4M 09/17</b>		X	X			X	X		X		X		X		X		X
<b>4N 11/19</b>	X		X		X			X	X			X	X		X		
<b>4N 11/24</b>	X			X	X		X			X			X		X		
<b>4N 12/10</b>		X	X			X	X		X		X		X		X		
<b>4M 12/15</b>		X	X			X	X		X		X	X					X
<b>3N 02/13</b>		X	X			X	X		X		X		X		X		X
<b>3N 06/04</b>	X			X	X			X	-	-		X	X		X		
<b>3N 06/13</b>	X		X		X			X	X		X		X		X		
<b>3M 06/29</b>		X	X			X	X		X		X		X		X		X
<b>3M 07/01</b>		X	X			X	X		X		X		X		X		X
<b>3M 08/30</b>	X		X		X		X		X		X	X		X			
<b>3M 08/31</b>	X		X		X		X		-	-	X		X		X		
<b>3N 10/01</b>	X			X	X			X		X		X	X		X		
<b>3M 10/26</b>		X	X			X	X		X		X		X		X		X
<b>3N 12/08</b>	X		X		X		-	-	X			X	X		X		

Taula 11 Haurren ezaugarri sexualak erakusten du.

Aipatzekoa da bost urteko mutil bati bez ez zaiola atzazalak margotzea gustatzen, sei urteko neska bati bez ez zaizkiola bi super-heroiak gustatzen, sei urteko mutil bati bez ez zaiola ezpainak margotzea gustatzen, bost urteko neska bati bez ez zaiola futbolera jolastea gustatzen, sei eta bost urteko mutil bati bez ez zaiola Nenukoak zaintzea gustatzen, sei eta bost urteko mutilei ez zaizkiola Frozeneko kromoak gustatzen, eta sei


urteko neska bati bez ez zaizkiola futboleko kromoak gustatzen. Ildo beretik, ikus daiteke neskek mutilei gehien gustatzen zaizkien gauzak gehiago gustatzen zaizkiela, mutilei “nesken gauzak” gustatu zaiena baino (ikus 17. grafikoa).



Grafikoa 17 Haurrek, urteka, erakutsi zaien materialaren aurrean aukeratu dutena

Amaitzeko, 2012 eta 2013ko haurrek 2011koekin alderatuz muturretara gutxiago jotzen dute; adibidez, 2011ko nesken % 20ari bi super-heroiekin jolastea gustatzen zaie eta mutilen % 80ari. Aldiz, 2012ko nesken % 60ari gustatzen zaie, eta mutilen % 80ari, eta 2013ko nesken % 60ari eta mutilen % 100ari gustatzen zaie (ikus 18. grafikoa).





Grafikoa 18 Hurrek,, jaiotze urteka, erakutsi zaien materialaren aurrean aukeratu dutena

Obserbazioak:

**6N 01/05**

- Mutilen jostailuak daudela esan du.

- Ez du inoiz futbolera jolastu. Gero zuzendu da eta egun batean jolastu zuela esan du.

**6N 01/10**

- Patioan super-heroinetera jolasten duela esan du; super-heroína horiek politak dira. Eta batzuetan indartsuak dira, beste batzuetan ez.

**6M 03/08 (A)**

- Atzazalak margotzea neskena da. Baina mutilek ere atzazalak margotzen dituztela esan du.

- Karritoarekin jolastea ez zaio gustatzen, karrittoa eramatea nesken gauza delako.

**6M 03/08 (B)**

- Karritoarekin jolastea ez zaio gustatzen, eta nesken eta mutilen gauza dela esan du.

**6N 03/27**

- Super-heroiak mutilen gauzak direlako ez zaio jolastea gustatzen. Bera neska izanda ahal du jolastu, baina ez du nahi.

**6M 04/30**

- Batzuetan ez diote atzazalak margotzen uzten, beti ez direla pintatu behar esaten diote; atzazalak jaten dituelako, eta aitak askotan esaten dio ez pintatzeko azazkal-laka jaten duelako.

- Bi super-heroiekin pixkatxo bat jolasten du.

- Ezpainak margotzea ez zaio gustatzen, neskek ezpainak margotuta ikusten diotenean neska dela pentsatzen dutelako.

- Frozenen kromoak ez zaizkio gustatzen neskenak direlako.

**5N 09/18**

- Super-heroiak ez ditu etxean, baina horiekin jolastea gustatzen zaio.

**5N 09/18**

- Ez zaio Nenukoeekin jolastea gustatzen baina aita eta ametara jolasten du.
- Futboleko kromoak gustatzen zaizkio, Frozenenak baino gehiago, baina amak ez dizkio erosten. Ez daki zergatik, baina ez dio uzten.

#### **5N 09/19**

- Ez zaio super-heroiekin eta Hulckekin jolastea gustatzen mutilen gauzak direlako.
- Patioan nesken gauzetara jolasten du: Printzesatara, ama eta aita...
- Gorjuss kromoak gustatzen zaizkio (Gorjuss ahorik gabeko neska bat da).

#### **5M 10/06**

- Aita eta ama ez diote atzazalak margotzea uzten, berak ez daki zergatik. Berari margotzea gustatuko litzaioke. Margotu nahi dituen galdetu diot eta ezetz esan dit; bakarrik usten diotenean margotu ahal dituela esan dit.
- Ez zaio ezpainak margotzea gustatzen, bakarrik azal koloreko ezpain-margoekin margotzea gustatzen zaio.
- Futbolera jolasten duela esan du elkarrizketan, baina 20 egunetan behatu dut eta ez du egun batean bez jolastu.

#### **5M 01/25**

- Ezpain margoa ez zaio gustatzen neskena delako.

#### **5N 03/18**

- Futbolera jolastea gustatzen zaio, baina patioan ez du jolasten.

#### **5M 05/02**

- Amak azazkaletan brillante ipintzeko dauka, berari gustatzen zaio, baina amak ez dio uzten. Azazkalak margotu nahi dituen galdetu diot eta baietz esan dit. Amak azazkalak margotzea ez dio uzten, amak ez diolako ezer ere ez uzten. Azazkalak margotu dizkiot eta egun osoan egon da bere azazkalak poz-pozik begiratzen. Eskolatik joan baino lehen kendu nahi dituen galdetu diot eta ezetz esan dit. Beraz, etxera azazkalekin margotuta joan da. Hurrengo egunean azazkalak garbi ekarri ditu.

- Ezpainak margotzea gustatzen zaio. Amak margotzen ez dizkiola esan du, nahiz eta berak margotzeko eskatu dion. Nik margotzea nahi izan du.

- Hulck moduko jostailuekin norbait ekartzen badu batzuetan jolasten du.

- Futbolean batzuetan jolasten du, baina beste batzuetan ez.

- Karrotxoarekin jolastea lotsa ematen dio.

#### **4M 08/26**

- Azazkalak margotzea gustatzen zaio, isekok margotzen dizkio.

#### **4N 11/19**

- Amak ez dio ezpainak margotzen, baina berari gustatuko litzaioke.

#### **3N 06/13**

- Futbolera jolasten duela esan du, baina 20 egunetan ez du futbolera jolastu.

#### **3M 06/29**

- Ez zaio azazkalak margotzea gustatzen mutilek hori egiten ez dutelako.

#### **3M 08/30**

- Azakalak margotzea gustatzen zaio eta neskak eta mutilak pintatzen dituztela esan du.

#### **3M 10/26**

- Ez zaio ezpainak margotzea gustatzen bera mutila delako.

- Handia delako ez zaio gustatzen karrotxoarekin ibiltzea.

**Erreferentzia bibliografikoak**

- Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (1978). Espainiako konstituzioa.
- Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (2013). 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzekoa.
- Andaluziako junta (1999). *Educación afectivo-sexual en la educación infantil. Guía para el profesorado*. Málaga.
- Area, Manuel eta Díaz, Raúl (2009). *Sexpresan, multimedia para la educación afectivo-sexual*. Guía didáctica. (2016/11/18). Hurrengo helbidetik hartuta:  
<http://www.harimaguada.org/sexpresan/>
- Basauriko sexu informazio bulegoa (d.g.) Haur sexualitatea eta aniztasuna lantzeko dinamikak eta proiektuak umeen sexualitateak. *Basauriko sexu informazio bulegoa*. (2016/01/20). Hurrengo helbidetik hartuta:  
<https://basaurisexgunea.wordpress.com/educacion/proyectos-de-basauri/>
- BBC. (2010) El niño que fue criado como niña. *BBC*. (2015/11/23). Hurrengo helbidetik hartuta:  
[http://www.bbc.com/mundo/noticias/2010/11/101125\\_cambio\\_genero\\_sexualidad\\_men.shtml](http://www.bbc.com/mundo/noticias/2010/11/101125_cambio_genero_sexualidad_men.shtml)
- Bolaños, M<sup>a</sup> Carmen, González, M<sup>a</sup> Dolores, Jiménez, Manuel, Rodríguez, M<sup>a</sup> Isabel eta Vega, Teresa. (2008). *Nuestra sexualidad*. Tenerife.
- Bolaños, María Carmen, González, M<sup>a</sup> Dolores, Jiménez, Manuel, Ramos, María Elena eta Rodríguez, M<sup>a</sup> Isabel (1994). *Guía de formación de madres y padres. Educación afectivo-sexual en las etapas Infantil y primaria*. Canarias.
- Camarero, Carmen, Redondo, Euke eta Urruzola, Ma José (1987). *Sexualidad en la escuela manual para educadoras*. 2. edizioa. Bartzelona: La Sal, edicions de les Dones.
- Castelo, Camil, de la Gándara, Jesús José eta Puigvert Ana Martínez (2005). La sexualidad en las diferentes etapas de vida. In Blümel, J. E, Castelo-Branco, C. eta Vallejo S. (2005). *Sexualidad humana una aproximación integral* (55-65. orr.). Espainia: Editorial médica Panamericana.
- Dorio, Inma, Sabariego, Marta eta Massot, Inés (2004). Características generales de la metodología cualitativa. In Rafael, Alzina, Dorio, Inma, Jesús, Gómez, Antonio, Latorre, Francesc, Martínez, Inés, Massot, Joan, Mateo, Marta,

- Sabariego, Antoni, Sans, Mercedes, Torrado eta Ruth, Vilá (2004). *Metodología de la investigación educativa* (275-292 orr.). Madril: Editorial La Muralla.
- Fernández, Pedro (1982). *Características y tratamiento de la sexualidad infantil, enfoque psicoanalítico Freudiano*. Madril: Narcea.
- Ferren, Ferran (1988). *Cómo educar la sexualidad en la escuela*. Bartzelona: Ceac
- Gamba, Susana (2007) *Diccionario de Estudios de Género y Feminismos*. Biblos.
- Gómez-Zapiain, Javier (2004). *Sexualidad y afectividad en personas con discapacidad psíquica. Pautas de actuación*. Donostia: Atzegi.
- Gómez-Zapiain, Javier (2013). *Psicología de la sexualidad*. Madril: Alianza Editorial.
- Gómez-Zapiain, Javier (d.g.). *La sexualidad infantil y el abuso sexual en la infancia desde la perspectiva del concepto y las actitudes hacia la sexualidad*.
- Hernández, Graciela eta Jaramillo, Concepción (2003). *La educación sexual de la primera infancia. Guía para madres, padres y profesorado de educación infantil*. Espainia: Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministerioa.
- Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila (2016). 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Haur Hezkuntzako curriculumuma, Heziberri. *Euskal Herriko agintaritzaren aldizkaria*, (9), 1-47.
- Howell, William, Eshelman, Virginia eta Kolodny, Robert (1987). *La sexualidad humana. 1. La dimensión biológica*. Bartzelona: Grijalbo.
- Iturbe, Xabier (2015). *Coeducar en la escuela infantil sexualidad amistad y sentimientos*. Bartzelona: Grao.
- Jauregizar, Joana (d.g.). *Atxikimendua ulertzen Hezkuntzaren ikuspuntutik*. UPV/EHU.
- López, Felix (2009). *La educación sexual*. Madril: Biblioteca nueva.
- López, Félix (2013). *La educación sexual de los hijos*. Madril: Piramide.
- López, Félix eta Fuertes, Antonio (1993). *Para comprender la sexualidad*. Nafarroa: Verbo dibino.
- Magister (2011) Educación Infantil. *Magister*, 10. Gaia, 1-48.
- Maio, Eliane Rose eta Alcaide, Carmen (2010). Una investigación sobre la importancia de la educación afectivo-sexual en las escuelas. *Revista Ibero-Americana de Estudos em Educação*, 5(3).

Padrón, M<sup>a</sup> del Mar, Fernández, Lola, Infante, Ana eta París, Ángela (2009). *Libro blanco sobre Educación Sexual de la provincia de Málaga*. Malaga.

Salguero, Vanesa (2009). Educación sexual en infantil. *Innovación y experiencias educativas CSIF*, (15), 1-11.

Unidad VIH/SIDA, Unidad de salud del niño y del adolescente, Salud familiar y comunitaria eta Organización Panamericana de la salud/Organización mundial de la salud (2005). *Modelo de consejería orientada a los jóvenes en prevención del VIH y para promoción de la salud sexual y reproductiva. Una guía para proveedores de primera línea*. Whashington D.C.